



**EKONOMIA FEMINISTA ETA
EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA:
BIDEZKOAGOA DEN EKONOMIA BATEN BILA**

UPV/EHU

**GIPUZKOAKO EKONOMIA ETA ENPRESA
FAKULTATEA**

**GRADU AMAIERAKO LANA
2018**

EGILEA: ITXASO MOLINILLO RUILOPE

ZUZENDARIA: ENEKOITZ ETXEZARRETA ETXARRI

AURKIBIDEA

0.SARRERA.....	6
KOKAPENA.....	6
MOTIBAZIOA	7
HELBURUAK.....	7
METODOLOGIA.....	8
EGITURA	9
1.TESTUINGURUAREN ANALISIA	10
1.1. GLOBALIZAZIO ETA KAPITALISMOA.....	10
1.1.1. Kapitala-bizia gatazka ezkutuan mantentzen.....	10
1.1.2. Biziaren krisia: zaintza- erreprodukzio krisia.....	12
1.2. DESBERDINTASUNA GENERO IKUSPEGITIK	13
1.2.1. Heteropatriarkatua	14
1.2.2. Estereotipoak	15
1.2.3. Sexu bidezko lan banaketa	16
1.2.4. Beste gabezia batzuk.....	17
2. EKONOMIAREN BERDEFINIZIORAKO EKARPENAK	20
2.1. EKONOMIA FEMINISTA	20
2.1.1. Ekonomia feministari hurbilketa	20
2.1.2. Ekonomia feminista vs Ekonomia kapitalista.....	21
2.1.3. Ekonomia feministaren proposamenak/ printzipioak	22
2.2. EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA	25
2.2.1 Ekonomia soziala.....	25
2.2.2. Ekonomia solidarioa	26
2.2.3. Ekonomia sozial eta solidarioa vs Ekonomia kapitalista	27
2.2.4. Ekonomia solidarioaren printzipioak: REAS (Red de Economía Alternativa y Solidaria).....	29

3. EKONOMIA SOLIDARIOAREN PRINTZIPIOEN IRAKURKETA FEMINISTA.....	33
3.1. ANALISI TEORIKOA	33
3.2. ANALISI ENPIRIKOA	39
4. ONDORIOAK	50
5. BIBLIOGRAFIA.....	52
6. Taula eta Irudien AURKIBIDEA	58
7. ERANSKINAK.....	59
E1 ELKARRIZKETAREN TRANSKRIPZIOA.....	59
E2 ELKARRIZKETAREN TRANSKRIPZIOA.....	71

LABURDURAK (AKRONIMOAK)

EF: EKONOMIA FEMINISTA

ESS: EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA

ES: EKONOMIA SOZIALA

ESol: EKONOMIA SOLIDARIOA

LABURPEN EXEKUTIBOA:

Laburpena:

Economia eta empresa eskoletan ikusezinak diren ekonomia feminista eta ekonomia sozial eta solidarioari buruzko lana da. Egun nagusi den sistema ekonomiko menderatzaile patriarkalari aurre egiteko aipatutako bi sistema ekonomiko alternatiboen bateratzea proposatzen da, “beste ekonomia bidezkoago bat” eratzearren alde. Horretarako, egungo sistemak eragindako zibilizazio krisiaren testuinguruan kokatuko da lana, genero ikuspegia barneratuz. Ostean, bi sistema ekonomiko kritikoen banakako karakterizazioa egiten dugu: sistema ekonomikoen hurbilketa, euren printzipioen analisia eta sistema kapitalistarekiko aldaraketa eginez. Behin aurreko kontzeptuak barneratuta, ekonomia feministaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren arteko harremanak sendotuko ditugu (ekonomia solidarioko printzipioen gutuna eta adituen ekarpenak jarraituz). Ondoren, etorkizunean sistema ekonomikoa aldatzeko erronkak eta helburuak aipatuko dira.

Resumen:

La economía feminista y la economía social y solidaria, habitualmente invisibilizadas en las escuelas de economía y empresa, serán los ejes centrales de este trabajo. Se propone una combinación de los dos sistemas económicos alternativos mencionados anteriormente para afrontar al sistema económico dominante y patriarcal actual, con el objetivo de crear “una economía más justa”. Para ello se comenzará en un contexto de crisis civilizatoria creada por el mismo sistema actual, añadiendo la perspectiva de género. Tras este punto, se procederá a explicar las diferentes características de cada sistema económico crítico: enfoque de los mismos, análisis de sus principios y comparación con el sistema capitalista. Una vez interiorizados estos conceptos, consolidaremos la relación entre la economía feminista y la economía social y solidaria (siguiendo los principios de la carta de economía solidaria y las aportaciones de los expertos). Posteriormente, se estudiarán los futuros retos y objetivos para lograr el cambio del sistema económico.

0.SARRERA

Egungo krisi ekonomikoaren argibide-bertsio guztiak sistema kapitalistak azken denboraldian izan duen funtzionamenduarekiko kritikak egiten dituzte. Denek bat egiten dute diotenean finantza merkatuen politika arautzaile eskasa eta eraginik gabekoa egin dela, interes-tipoen murrizketaren politika eraman dela (batez ere AEB-Amerikako Estatu Batuetan, baita ere beste herrietan), egoera honek AEbetan 2007-ko udan lehertu egin zen higiezin-burbuila suspertu egin zuen, krisi honen hastapena une horretan kokatzen delarik; gizarte etika arduragabe eta zitala barreiatu egin da, kapa sozial guztiak kutsatzu, hauetako batzuk, kasu batzuetan, kontsumo eta zorpetze maila handitzera eramanez eta bestetan, finantza eliteen kasuan, ekonomiaren kasino funtzionamenduaz baliatzera, jakinda porrotak heltzean estatuaren parte-hartzearekin ordainduko zirela. Beste bertsio batzuk harago doaz, eta azken hiru hamarkadetan jasandako krisiekiko oraingo honen honako elementuak aditzera ematen dituzte: sistemaren muinetan sortu egin dela, AEbetan hain zuzen, eta hemendik mundu osora hedatu egin dela; epe motzean krisi-fronte desberdinek bat egin dutela (higiezin-krisia, finantza krisia eta benetako ekonomiaren krisia), atzeraldi orokor globala sortuz.

Pérez Orozko (2010a) ekonomilarri feministak dioen bezala, aurreko paragrafoetan aipatutako ideiak ez dira faltsuak, baina hauei soilik lotuz gero, krisiarekiko ikuspegia azalekoa eta osagabea izango litzateke.

KOKAPENA

Egunez egun ikusten da nola egungo eredu ekonomiko kapitalistak gero eta bazterketa, desberdintasun eta bidegabekeria gehiago sortzen dituen inongo kontrolik gabe (gizarte krisia). Aurreko egoera dela eta, ezaguna den sistema ekonomiko liberalari erantzuna eta alternatiba planteatzen duten eredu ezberdinak gero eta gehiago dira, bizitza erdigunean jartzen dituzten alternatibak direnak.

Horietako eredu bat EF-n aurkitzen dugu. EF-k bere aldetik, nabarmentzen du aurretik ere krisian geundela: krisi ekologiko sakona zegoen munduan, gizarte erreprrodukzio krisia zegoen hegoalde globalean, eta zaintza krisia zegoen iparralde globalean; adierazle ekonomikoak ondo zohoazen, baina bizia, ez. Eta eztanda finantzarioari emandako erantzunak ildo beretik jo du: kapitalaren arriskuak sozializatu eta biziaren arriskuak pribatizatu dituzte, hau da, kapitala erreskatatu, bizia arriskuan jarri. Ondorioz, garapenaren ametsa hautsi egin da, eta erreprrodukzio krisia sortzen hasi da: bizi prekaritatea handitu da. Hortaz, uste dugu krisia sistemarena dela, zibilizazio proiektua bera dagoela krisian (Pérez Orozco, 2010b).

ESol eraikuntza estrategia alternatiba horietako bat da, kapital handiaren ondorioz probokatuak izan diren ekoizpen eta lan erlazioetan ematen diren aldaketak aprobetxatzen dituena, ekoizpena eta elkar trukeak antolatzeko modu berrien oinarriak emateko eta sustatzeko. Beste hitzetan, ESol-aren enborretik hazten den ekonomia egiteko beste modu bat da. Eredu kapitalistaren hegemoniarekin bukatzeko bestelako eredu ekonomiko eta soziala proposatzen du; jarduera ekonomikoaren erdigunean pertsonak eta bere lana jarri kapitalaren ordez. Hots, mozkinen maximizazioaren aurrean justizian, kooperazioan, elkarrekikotasunean eta elkar laguntzan oinarritutako ekoizpen, banaketa, kontsumo eta finantzaketa erlazioak

ezarriz (Pérez de Mendiguren, Etxezarreta eta Guridi, 2009). Hau da, merkatuen logika lehiakorraren alderantzizko logikarekin funtzionatzen du eredu honek. Beraz, ESol-k balore, praktika eta ikuspegi berri bat aurkezten digu eraldaketaren alde.

Zentzu horretan, ESS-k eta EF-k kritikatu egiten dute, biek, nagusi den sistema ekonomiko menderatzale patriarkala, bai eta sistema horrek errealtitatea interpretatzeko oinarri hartzen dituen hipotesiak ere.

Kritika horren bitartez, “beste ekonomia bidezkoago bat” eratzearen alde egiten da; elkarren mendekotasunean, elkarrekikotasunean, jardunbide demokratiko, parte-hartzaile eta gardentasunekoetan oinarritutako beste harreman ekonomiko batzuen alde, pertsonen arteko zuzentasuna izanik jardunbidearen ardatz zuzendaria eta garrantzia emanet bizitzarako beharrezkoak diren lan guztiei. Beste hitzetan esanda, bidezkoagoa, inklusiboagoa eta iraunkorragoa den beste ekonomia bat eratzea bilatzea da helburua, beti pertsonen arteko ekitatea ardatz nagusitzat izanik.

Lotura sendoak daude, beraz, bi ekonomia kritiko horien artean, eta hurrengo lanak bide horretatik jarraitu nahi du aztertzen eta ikertzen. Hau da, ESS indartuko duten ekarpen feministak hausnartuko dira, eta era horretara, horien elkarren gaitasun eraldatzailea ere.

Zentzu honetan, aurrean aipatutako gizarte krisi egoera horren aurrean ESS eta EF ikuspegi heterodoxoak elkarrizketan jartzen saiatuko da lan hau. Helburu nagusia, krisiari aurre egiteko ikuspegi hauen ekarpenak eta proposamenak zeintzuk diren ezagutzea izanik. Horretarako, lehenik arreta berezia jartzen zaio eredu hauetako aurreko arazoei edota egoerari.

MOTIBAZIOA

Nahiz eta hezkuntza esparru formaletan, ESS-ren eta EF-ren ekarpenen ikusezintasuna nabaria izan; gaiaren gaurkotasuna eta garrantzia ukaezina da. Hortaz, gaiari ikusgaitasuna emateko nahiarekin, honen inguruan ikertzea erabaki da. Horretarako, egungo sistemaren testuinguru teorikotik abiatuz, praktikoki aurrera eramatzen den benetako esperientzia bati buruzko lana da hau. Hala ere, nahiz eta ESS eta EF kontzeptu teoriko gisa akademikoki nahiko ikasita dauden, eta beraz, nahiko literatura dagoen; eredu hauen lotura ez dago hain hedatuta akademikoki. Horregatik, bi ereduak lotura hobeto ulertzeko, ESPG-ean (Ekonomia Solidarioko Printzipioen Gutuna) ageri diren sei printzipioak –ekitatea, lana, ingurumen iraunkortasuna, kooperazioa, lukuru asmorik gabekoa izatea eta ingurunearekiko konpromisoa – aztertzen dira banan banan.

Gaiari ikusgarritasuna emateaz gain, lan honekin, landutako gaiari buruzko literaturari ekarpen bat egin nahi izan zaio.

HELBURUAK

Lan honen helburu nagusia, hortaz, EF eta ESS-ren arteko harremanak finkatzea eta aztertzea izango da krisi kapitalista testuinguruan kokatuta. Ekonomia sozial eta solidario feministak sustatzeak gogoeta prozesu bat egitea eskatzen du, eta horren

bidez erantzunak ematea modu parte hartzailean: Zer eskatzen dio gizartea ekonomiari? Zein dira arazo nagusiak? Zer rol dauka emakumeak eredu neoliberalean? Zer erronkei egiten diegu aurre? Zein dira ikuspegi kritiko hauen aukerak eta ahultasunak erronka horiei aurre egiteko?....

Azken batean, orokorrean ekonomia berdefinitzeko zein krisiari aurre egiteko bi ikuspegi heterodoxo hauen proposamenak eta ekarpenak ezagutzea da bilatzen dena. Aurreko bi eredu ekonomiko alternatiboen harremanak sendotzeaz edota aztertzeaz gain, helburu honi heltzeko bidean hurrengoko azpi-helburuak definitu dira:

- Gaur egungo krisiaren beste irakurketa egingo da, arlo finantzariotik aldendu eta gizartean oinarrituz (genero ikuspegia barneratuz).
- Aurreko krisi egoeratik abiatuz, EF-k eta ESS-k egiten dituzten proposamenak ezagutuko dira sistema eraldatzeko asmoz.
- ESol-ren printzipioen irakurketa feminsita burutuko da modu teoriko eta praktikoan (bi sistema altenatiboak elkarritzetan jarriz).
- Ekonomia berrantolatzeko bideak bilatuko dira: bidezkoagoa, inklusiboagoa eta bitzitzarria erdian jartzen duen sistema ekonomikoa nola bultzatu daitekeen proposamenak aurkezteko.

Edo horretan ahalegindu naiz behintzat.

METODOLOGIA

Aipatutako helburuak finkatuta, hauei erantzuna emateko zenabit kontzeptuen azalpen teorikoak erabili dira lan honetan. Horretarako, hainbat metodo eta tresna erabili ditugu informazio baliagarria eskuratzeko asmoz, non, informazio iturri eta literatura akademiko ugari eskuratu diren gaiaren inguruan. Web orrialdeetan topatutako ESS-rekin eta EF-rekin erlazionatutako dokumentu eta txostenen analisia gauzatzea erabilgarria izan zaigu (arlo hauetan garrantzitsuak diren autoreek argitaratutako lan zein txosten ezberdinetan oinarritu gara). Horrez gain, UPV/EHU-ren liburutegiak eskainitako informazio akademikoaren zerbitzua ere oso lagungarria izan da.

Horregatik, lanaren zati handi bat berrikuspen kontzeptualean edota kontzeptuen konparaketan oinarritzen da.

Lehenik eta behin, esan beharra dago lan hau egungo sistema ekonomiko kapitalistataren egoeran kokatzen dela, gaur egungo egoera zein den eta gehienbat gizartean zein eragin izan dituen (eta dituen) aipatzea ezinbestekoa izango da hurrengo puntuak planteatzerako orduan. Izañ ere, azterketa honen ardatza eta lotura gunea ekonomia sistemaren gorabehera izango dela esan daiteke. Horregatik, azterketa hau baliagarria izango da batetik, sistema nagusiak ezkutatzen dituen lanak eta eragileak bereziki ezagutzeko eta bestetik, harreman ekonomiko zein harreman sozialen beste eredu horretan zer nabarmendu behar den jakiteko, iraganeko akatsak ez errepikatzeko asmoz.

Testuinguru honetan, lan teoriko batetik abiatuta ESS-ren eta EF-ren arteko harremanak eta kontzeptuak sendotuko dira egungo sistemak gizartean sorrarazitako

gabezien aurrean, sistema berri bat eraikitzeko helburuarekin. Modu horretan, loturen hausnarketarako ESol-ren gutunean aipatzen diren sei printzipioak erabiliko dira gida bezala: ekitate printzipioa, lanaren printzipioa, ingurumen iraunkortasunaren printzipioa, kooperazio printzipioa, lukuru asmorik gabekoa izatea eta ingurunearekiko konpromisoa alegia.

ESS-ren eta EF-ren azterketarekin aurrera eginez bi elkarrizketa pertsonalak egin dira, aurrez aurrekoak. Hauek hirugarren atala osatzeko erabili dira, non, gradu amaierako lan honetarako elkarrizketaturiko adituen diskurtsoaren azterketatik eratorritako ekarpen nagusien analisia burutu den: analisi enpirikoa.

EGITURA

Egituraren aldetik, lana lau zati nagusietan edo kapitulueta banatu dezakegu. Testuinguruaren analisiari ekiteko, lehenik eta behin, egungo egoera ekonomikoaren berri emango da; eraldaketa ekonomiko sozialaren kontzeptua ulertzeko gakoak diren kontzeptuak landuz. Ezinbestekoa izango da gaur egungo egoera zein den ezagutzea, aurretik aipatutako ekonomia eredu alternatiboek -ESS eta EF- zein egoeraren aurrean planteatzen diren ondo kokatzeko. Honekin lotuta, ESS-ren eta EF-ren ekarpenak, kritikak zein proposamenak hausnartuko dira egungo sistemak sortutako gabezien eta arazoen aurrean (bidezkoagoa izango den sistema ekonomiko berri bat bideratzeko helburuarekin).

Bigarren kapitulua generoaren ikuspegiarekin dago lotuta. Ikuspegia horretatik begiratuta, ohiko eredu ekonomikoa aztertzean, garrantzitsua da nabamentzea EF-k aztergai dituen alderdiak, esaterako bizitzaren iraunkortasuna edo lanaren kontzeptua, pertsonak erdigunean jarri nahi dituztenak. Beraz, atal honetan emakumezkoaren papera izango da protagonista. Eedu kapitalistak emakumezkoengan sortutako ondorioak eta ezberdintasunak aztertuko dira. Azkenik, hurrengo zatiari (eredu ekonomiko alternatiboen analisia) sarrera egitearren, sistema menderatzailearen aldaketa ezinbestekoa dela ere ikusiko dugu bigarren kapitulu honetan. Lehenengo bi kapitulu hauek lanaren marko teorikoa osatuko lukete.

Hirugarren kapitulua zabalena izango da. Bi eredu ekonomiko alternatiboei egingo dio erreferentzia. Sistema hauen banakako azterketa eta oinarri teorikoak ikertu eta alderatuko dira.

Laugarren atal baterako utzi dugu, berriz, ESPG-k (Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutuna) definitutako printzipioen irakurketa feministak. EF-ren eta ESol-ren ekarrietatik, ekonomia birpentsatzeko elementuak proposatuko dira. Lehenengo atal teoriko bat jorratuz, eta ondoren, elkarrizketaturiko adituek egindako ekarpen nagusiekin analisi bat antolatuko da (ESS-ren eta EF-ren harremanen azterketa praktikara eramanez).

Azkenik, behin ikerketa burututa, lan honetatik eratorriako ondorioak aurkeztu eta azalduko dira. Horixe da datozen lerroetarako prestatua dudana, irakurle, ondagizula espero.

1. TESTUINGURUAREN ANALISIA

1.1. GLOBALIZAZIO ETA KAPITALISMOA

Gerra Hotzaren amaierarekin bat neoliberalismoaren eredu ekonomikoaren hegemonia eterri zen. Alegia, garai hartatik aurrera hasiera batean alternatiboa zirudien eredu batek geroz eta bortitzagoak diren neurriak ezarri ditu gizarte ezberdinan. Boterea dutenen alde egiten duen sistema den bitartean, pobreza eta bazterkeria eragiten du bestetik (Mugarik Gabe, 2017).

Optika neoliberaletik, egungo krisia 2007-an sortu zen, baina, lan honen ikuspegiarekin bat argi dago lehenago hasi zela. Dendarik gabe, krisi sistemiko eta dimensio ugariadun baten aurrean aurkitzen gara. Asko dira abizen posiblak: politikoa, ekologikoa, elikadurarena, energetikoa, zainketena, eta abarren zerrenda luze batek baiezatzen du krisia ez dela bizitzaren jasangarritasuna arriskuan jartzen duen prozesu multzoa baino (Mugarik Gabe, 2017).

Ildo horretan, jarraian sistema ekonomikoak eragindako gizarte zibilizazio krisia eta honen inguruan sortutako ondorio ezberdinak aztertuko dira. Planteamendu horretatik abiatuta, ondoren genero ikuspegia barneratuko da hausnarketan, non, emakumearen papera krisi egoeraren aurrean nabarmenduko den.

1.1.1. Kapitala-bizia gatazka ezkutuan mantentzen

Gaur egun, kapitalismoa, neoliberalismoa eta patriarkatua ardatz diren mundu globalean bizi da gizakia. Izañ ere, egungo sistema ekonomikoak pertsonen bizi za, ongizatea eta beharrizanen asetasunaren aurretik merkatua eta mozkina jartzen ditu, hortaz, merkatuan garatzen diren zeregin eta jarduerei balore sozial eta onarpen handiagoa ematen die. Honez gain, bizitzaren iraunkortasuna ahalbidetzen duten prozesuez guztiz independentea den eta buruaskia den sistema bezala agertzen da kapitalismoa (Pérez Hernandorena, 2015).

Zentzu horretan, balioa eta prezioa berdindu dira; izan ere, gaur egungo ekonomiaren ikuspuntutik moneta unitateetan neurtu daitekeena soilik izango da ekonomikoki baliagarria. Eta beraz, bakarrik balio ekonomikoa handitzen duten prozesuak konsideratuko dira ekoizpena (Herrero, 2013). Hortaz, berdin dio zer, nola, zeinentzat eta non ekoizten den unitate monetarioan neurtu ahal baldin bada. Adibide gisa, berdin dio armak edo medikamentuak ekoiztea; ekonomikoki biak berdin konsideratuko baitira.

“El capitalismo y la ideología neoliberal viven de espaldas a ambos tipos de dependencias materiales de la vida humana e ignoran los límites o restricciones que éstas imponen a las sociedades. Operan como si la economía flotase por encima de los cuerpos y los territorios sin sus límites le afecten, estableciendo una dicotomía entre lo económico –aquel que se mide en términos monetarios en la esfera mercantil– y lo no económico –todo aquello no medible a través del dinero–.” (Herrero, 2012: 57)

Esan bezala, kapitalismoa etengabe hazkundea sortzean datza (mugarik gabeko hazkundea, pertsonen beharrak kontuan hartu gabe), eta hura herrialdeen Barne

Produktu Gordinaren bidez (BPG) neurten da; indize horrek, hain zuzen, merkatuaren barruan ekoizten dena baino ez du aberastasuntzat kontabilizatzen. Hala, bada, egungo sistema sozioekonomikoak merkantilizaturik ez dagoen guzia gutxietsi eta ikusezin bihurtzen du, nahiz eta jardun hori guzia ezinbestekoa izan sistemak funtzionatzen jarrai dezan (Feminismos Desazkundeak, n.d.). Ondorioz, egungo teoria ekonomikoan dirua baino ez da ekonomia; merkatuetan ez dagoen guzia galdu egin da.

Kontua da esaten dela BPG (barne produktu gordina) haztea ona dela, baina, hori merkatua hedatzeko helburuarekin erabakitako irizpide politiko bat da. Merkatuan gero eta gehiago eta mugarik gabe kontsumitzea da ongizatea, baina, ideia hori ezaian jarri behar da. Alde batetik, muga sozial ekologikoak kontuan izan behar direlako (material eta energia kontsumo ezinezko bat dakar). Bestetik, balio diferentea ematen dielako batzuen eta besteen bizitzei. Baina, hortaz gain, argi dago dauzkagun behar guztiak merkatuak asetzan ez dituela (kontsumitzalearen asezintasuna) (Gil eta Pérez Orozco, 2016).

Askotan entzun ohi da egungo krisia ez dela ekonomikoa soilik. Izan ere, krisi ekologikoa ere bada eta, horretaz gain, elikagai-krisia hainbat lekutan ere. Bestalde, zaintza eredu, non emakumeek zaintza lanak bere gain hartzen dituzten, non estatuak, enpresak... alde batera geratzen diren, krisian ere badago (Gil eta Pérez Orozco, 2016). Era berean, soilik ekonomia produktiboa konsideratzen da ekonomia, baina ezkutatu egiten da ekonomia produktibo hori ezinezkoa litzatekeela merkatutik kanpo gelditzen diren lan erreproduktiborik gabe.

Azken finean, egitura horrek bilatzen duena gizartea kontrolatzea da, zaintza lan horietan jarraitu behar delako, lan horiek egin gabe ezinezko delako sistemak aurrera egitea, baina lan hori guzia ezkutuan mantendu nahi da (Carrasco, Borderías eta Torns, 2011). Horrela, egungo gizartean baloratzen den lan bakarra esparru publikoan egiten den ordaindutako lana da, etxeetan ere ekoiztu egiten dela onartu gabe. Izan ere, etxeguneak produzkie guneak dira, bizitza bermatu eta giza baliabideak sortzen direlako bertan, etxeko zaintzei esker ordaindutako lana posible bihurtuz. Baina... zer gertatuko litzateke ezkutukoa bistaratuko balitz? Pribatua publiko bilakatuko balitz?

Lan honetan, krisi hitzak ez dio soilik erreferentzia egiten merkatuek jasandako egoera ekonomiko zailari. Baizik eta, testuinguru zabalago batetik, krisi hitzak egungo ekoizpen eredu kapitalistaren eta gizartearen arteko egiturazko erlazioari egiten dio erreferentzia. Hizkera arruntean, merkatu kapitalistak erdigunetik kendu behar dira; merkatuei begiratu ordez, biziari begiratzean datza gakoa. Eta, bizia aztertzean, ohartuko gara kapitalarekin gatazkan dagoela: kapitala pilatzeko prozesuak ez datozen bat bizia iraunazteko prozesuekin (Pérez Orozco, 2014).

Hor kokatu beharko litzateke beraz lanaren abiapuntua, merkatuz kanpoko gizarteko krisi egoera batean, non, aldi berean erreprodukzio- zaintza krisia ematen den, hain zuzen ere.

Ildo honetan, bizitza bera arriskuan jartzen duen ekonomiaren berrazterketa egitea ezinbestekoa izango da. Lanaren sarrera- puntu sakontzeko eta hasieratik ondo kokatzeko asmoz proposamena: krisi ekonomikoaz hitz egiteari uztea —merkatu mekanismoetara ez mugatzeko—, biziaren krisiaz hitz egiteko.

1.1.2. Biziaren krisia: zaintza-erreprodukzio krisia¹

Gure buruari galdetuko bagenio giza bizitza zeren mendean dagoen, erantzunarekin jabetuko ginateke izaki oso interdependenteak garela. Jaiotzen garenetik zahartze eta hiltzen garen arte, beste pertsona batzuk ematen diguten denboraren mende izaten gara. Gorputz zaurgarriak gara, gaixotzen eta zahartzen diren gorputzak gara, eta bakarrik bizirik irautea ezinezkoa da. Hau da, era batera edo bestera, ez gara pertsona autonomoak. Gizakia izaki soziala da, bakarrik ez du bizirauten. Beraz, argi eta garbi izan beharreko ideia zera izango da: guztiok gara menpekoak eta giza bizitza terminoetan, giza gorputzak jartzen ditu mugak.

Beraz, beste belaunaldi bateko pertsonek ez baldin badute euren lan denboraren kantitate handi bat bizitzeko oinarritzkoak diren funtasioak (elikatu, garbitu, oheratu...) egiteko erabiltzen, gizakia ezin da bizi.

Sistema kapitalistak ez du kontuan hartzen errealityate hau. Kasu honetan, gorputz zaurgarritasuna onartzen ez bada, are gutxiago aitortzen dira gorputz zaugarriei arreta ematen dizkieten lanak, batez ere emakumezkoek egiten dituzten lan horiek. Izan ere, emakumezkoek lan horiek egiten dituzte patriarkatuak lanaren banaketa sexualean ezartzen dien rolarengatik (aurrerago sakonduko den ideia).

Honela, pertsona askoren ongizatea lan horren baitan dagoenez eta ezin denez egin gabe utzi, emakumeek lanaldi bikoitzak eta hirukoitzak euren gain hartu behar izaten dituzte; lan horretaz baliatzen den sistema ekonomikoaren tentsioak doituz. Lehen esan bezala, sistema lan horietaz baliatzen da, baina, emakumeei ez die egiten duten lan hori aitortzen.

Egoera honetan, gizarte kapitalistan tentsioak sortzen dira. Tentsio horiek gehienbat etxebizitzatan sufritzen dira, denboraren kudeaketa dela eta: eguneroko bizitza aurrera egiteko beharrezkoak diren zaintzek nahiko denbora eskatzen dutelako. Lurrazaleko materialak mugatuak diren bezala, pertsonen denborak lan egiteko ez dira azkengabeak. Planetaren muga biofisikoen inguruko ezjakintasunak egun pairatzen dugun krisi ekologiko sakonera ekarri gaituen moduan, izaki eta giza beharentzako arreta bermatzen dituzten denboren antolaketan eta erreprodukzio sozialean ematen diren aldaketen inguruko ezjakintasunak ere deituriko “zaintzen krisi”-ra ekarri gaitu.

Herrerok (2012) zaintza hauek denbora asko eskatzen dutela dio, hori dela eta, egiturazko gizartean tentsio handiarekin topatzen gara, non, bizitza zaintzeko denbora erabilgarria gero eta gutxiago den eta ordea, denbora hauen beharra handiagoa. Aipatutako tentsio horri “zaintza krisia” deritzo, horrela izendatu baitu EF-k.

¹ Atal honi heltzeko Pérez Orozco ikerlariaren “zaintzaren krisia”-ren inguruan egindako ekarpenetan oinarritu naiz neurri handi batean, autorearen lan ezberdinetan (2006a, 2006b, 2010a, 2010b, 2014, 2015) gaiaren inguruan egikaratutako diagnostiko zorrotza jarraituz. Horrez gain, hausnarketa ezberdinak indartzeko, Quirogak (2010) idatzitako “¿De qué crisis estamos hablando?” artikulutik eratorritako zenbait ideia lotu eta barneratu dira ere.

Hortaz, ekoizpen eredu kapitalistan moneta unitateetan neurten dena soilik da ikusgarria (aurrean azaldu den bezala). Hau da, sistema kapitalista eta ideologia neoliberalak ordaindu gabeko lan hauei bizkarra emanaz bizi dira, eta ez dituzte kontuan hartzen mendekotasun hauek jendarteei inposatzen dizkieten mugak edo hertsadurak.

Neurri batean esan daiteke ez- ordainduak diren lan estrategiko hauei esker doala aurrera edo mantentzen dela gaur egungo sistema ekonomikoa. Hala ere, gorputz eta lurraldeen gainetik flotatuko balu bezala funtzionatzen du ekonomiak, horien baitan egon gabe eta beren mugek eragingo ez baliote bezala. Modu honetan, ekonomiaren interpretazioak gaur egun erreprodukzioa ikusezin bihurtzen du esparru pribatuan kokatzerakoan.

Ondorioztatuz, giza-baliabideak lan-merkatuan erabiliak eta ustiatuak izateko ezinbestekoa da etxebizitzatan egiten den ordaindu gabeko lan kantitate handi bat egotea (emakumezkoek bultzatuta gehienetan). Beste hitzetan esanda, gaur egungo ekoizpen eredu kapitalistaren eta soziitatearen arteko erlazioa giza bizitzaren menpe dago, aberastasunaren pilaketa maximizatza helburu izanik.

EF-k dioen moduan, kontraesan handi bat dago, alde batetik, erreprodukzio natural eta soziala, eta bestetik, kapitalaren pilatzebidearen artean. Hau da, erreprodukzio soziala eta bizitzaren mantentzea alde batetik, eta bestaldetik geroz eta handiagoa den pilatzea bateragarriak egitea oso zaila izan delako beti; langileriak, ekologismoak eta feminismoak horren testigantza eman dezakete. Gainera, partzialki suntsituta dagoen planeta batez ari garenean, bateragarri egite hori ezinezkoa egiten da. Are gehiago, lehentasun biek ezin dute aldi berean elkarrekin bizi. Izan ere, ez du inolako zentzurik giza beharren asetza merkatuen helburu nagusia ez izatea.

Aurreko egoera ezegonkorra hausnartu eta gero, ondorioztatzeko da ondorengo beste gizarte orden bat ezinbestekoa dela, non, emakumezkoaren papera gizartean birplanteatza ekartzen duen (Pérez Orozco, 2014). Edozein izanik ere eredu berri hori hartzera doan itxura, izan publikoagoa ala pribatuagoa, gauza batek ez dirudi aldatzeko itxura handiegirik duenik: andrazkoen protagonismoak zaintza lanen arduretan. Gainera, zaintzaren krisia ebazteko hartzen ari den modu atzerakoiak arazoak emakume batzuetatik besteetara transferitza dakarrela ikusten da. Etxean emakumeak jarraitzen du zaintzaile izaten, izan ere, etxeko emakumearen tokia hartu duten langile zaintzaileak ere emakumeak dira, eta gaizki ordainduak gainera. Gizezkoek, oro har, ez dute zaintza lanen gaineko ardurarik handiagotzen, ez baitute beren soldatapeko lanaren erritmo zein formarik egokitzen zaintza lanei loturiko beharrizan aldakorretara. Lehen aipatu den bezala, egoera horrek emakumeen lanaldia bikoiztea edota hirukoiztea ekarri du eta horrekin batera lan merkatuan zein zaintza lanetan aldi berean egoteak sortzen dituen sufrikario eta mugapenei lotuta (Izquierdo, 1998). Ildo honetatik jarraituz, hurrengo atalean emakumeak sufritutako bizi- prekarieta egoera sakonago hausnartuko da.

1.2. DESBERDINTASUNA GENERO IKUSPEGITIK

1980ko hamarkadan eredu neoliberalaren oinarrizko politikak mundu osoan inposatu nahian ari zirenean, bizi-baldintzak nabarmen okertu egin ziren; bereziki,

emakumeenak. Sistema patriarkalaren eta kapitalistaren kontra borrokatu beharrean krisiaren testuinguruan oinarritu zen kezka. Hori dela eta, emakumeen egoera soziala (sistema patriarkalaren barnean) oso gutxi aldatzen zen eta aldaketak ez ziren finkatuak izan (Rius, 2017).

Desberdintasunaren inguruko eztabaida polemikoa eta zabala da, pentsamendu sozial moderno askotan azaltzen da eta sarriago sortu dira desadostasunak uneren batean lortu diren adostasunak baino. Globalizazio ekonomikoak gehiago handitu ditu pertsonen, gizarte-taldeen, herrialdeen eta eskualdeen arteko desorekak eta asimetriak. Gero eta desoreka handiagoak eta bidegabeagoak dira, mantendu egiten dira eta are harreman handiagoa dute beste aldagai batzuekin, hala nola generoarekin, arrazarekin, etniarekin... (de la Cruz, n.d.:22).

Atal hau zehazki genero aldagaiaren inguruan arituko da eta emakume eta gizonen arteko botere harremana aztertuko da bertan. Beraz, genero ikuspuntua aintzat hartuz, laburki bada ere, zenbait kontzeptu azalduko dira gaiaren inguruan.

1.2.1. Heteropatriarkatua

Egungo gizartek, testuinguru bakoitzaren berezitasunak berezitasun, bi sistematan sostengatzen dira: sistema kapitalista eta heteropatriarkala. Sistema hauek sistema soziala hierarkizatzen dute elementu hauek elkar-gurutzatz, besteak beste: generoa, sexua, klase soziala, adina, etnia jatorria, azalaren kolorea, hautu sexuala... botereen banaketa ezberdina eginez (Mugarik gabe, 2017).

Testuinguru honetan, sistema kapitalista eta patriarkalaren arteko aliantza baten aurrean aurkitzen da sistema ekonomikoa; non, batak besteari elkarri laguntzen dion bere hegemonia nabarmentzeko eta gizartean zein mundu mailan eusteko.

Beraz, Pérez Orozcok² baiezatzen duen bezala, sistema kapitalista honen hasierako osagai garrantzitsu bat ideologia zein praktika patriarkala izan da; izan ere, gizonen eta emakumeen arteko mendekotasun harreman hierarkizatu baten gainean eraikia izan da. Horrekin batera, eremu publikoaren eta pribatuaren arteko bereizketan oinarritutako sistema kapitalistak esparru pribatura baztertu du zaintza, andreen ardurapera. Horrek agerian uzten du sistema ekonomikoa biozida dela; ez du mundu osoan berdin hiltzen, ez die bizi guztiei berdin erasaten, baina biziaren premiei erantzutea beste zerbait lortzeko bitarteko bihurtzen denean, hau da, diru etekin pribatua pilatzeko egiten denean, bizia arriskuan dago beti. Eta mehatxupean den biziari sistemaren eremu ezkutuetan ematen zaio irtenbidea: etxeetan pribatizatuta —ez da ardura kolektibo bat—, feminizatuta, eta ikusezin.

Azkenaldi hontan jasandako murrizketa sozialek egoera hau biziki larriagotzen dute osasungintzan murrizteagatik, diru-kopuruak blokeagatik, soldatuk murrizteagatik, kaleratzeak errazteagatik... Zerbitzu publikoek betetzen ez dutena eta bizi-beharrei, etxebizitzari, zaintzei, osasunari, eta abarrari dagokiena etxeen bizkarren gainean erortzen da. Eta etxeetan patriarkatuaren korporazioekin egiten dugu topo, familiekin hain zuzen (ESK, 2013: 19).

²https://www.berria.eus/paperekoa/1960/020/001/2016-12-18/eragile_ekonomiko_guztiei_erreparatu_behar_zaie_ea_bizia_iraunazten_ari_diren.htm

Familia patriarkaletan, emakumeak dira, batez ere, tentsioak bere gain hartzen dituztenak. Izan ere, denboraren erabileraren inguruko inkestek emakumeen etxeko lanetan ematen duten denborak gorakada izan duela diote. Hori dela eta, emakumezkoek bizi-prekarietateak eragiten dituen tentsioen parte handiena bere gain hartzen dutela esan daiteke (ESK, 2013: 19).

Ikusiko dugun bezala, bat datozen bi sistema dira, elkar behar eta indartzen direnak. Biek behar dute existitzeko esplotazioa. Pertsonen eta planetaren menpekotasun eta esplotazioan sustengatzen dira. Genero desberdintasunek bereziki emakumeak esplotatzea dakarte³, nahiz eta desberdintasun hauek ere modu bereizian eragin beste faktore batzuk medio, etnia, arraza, adina, hautu sexuala, erlijioa edo jatorria, kasu. Elkarrekin ideologia trinko bat sortzen dute, bizitzako eremu guztieta eragiten duena, mundua ikusteko zein harremantzeko dugun modua baldintzatuz. Horrela eraikitzen dira subjektibitateak, desirak, beharrak eta identitateak (Mugarik gabe, 2017).

1.2.2. Estereotipoak

Nolanahi ere, gaur egun, ekonomia zientzia formal, isolatu eta burujabea den ustea errotik finkatuta dago; non eskola neoklasikotik eratorritako “homo economicus” deritzogun subjeto arrazional, berekoi, lehiakor eta utilitaristak agintzen duen (Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2015a).

Gizon eta emakumeen funtzionamendu ekonomiko ezberdina azaltzerako orduan, gaur egun oraindik indar handia daukaten eta ustezko ezberdintasun biologikoetan oinarriturik dauden estereotipoetara jotzen da sarritan (Pérez hernandorena, 2015: 3).

³ Estatistikaren Institutu Nazionalaren arabera, Estatu espainiarrean, emakumeek bataz beste lau ordu eta 29 minutu ematen dituzte etxebizitzan eta familian, eta gizonek 2 ordu eta 32 minutu.

1. Taula: Emakumeek eta gizonzkoek hartutako rolak:

EMAKUMEA	GIZONA
AHULA	INDARTSUA
INTUITIBOA	AZKARRA
PASIBOA/ MANTSOA	AKTIBOA/ GOGOTSUA
PРИBATUA	PUBLIKOA
SENTIBERA	ARRAZOIZKOA
AMATIARRA	HORNIDURA EKONOMIKOA
BESTEENTZAT	BERE BURUARENTZAT

Iturria: Geuk egina Setem (2016)-tik abiatuta

Horrela, genero bakoitzak gizarte balio ezberdina hartzen du, gizonzkoek prestigio sozial handiagoa izanik. Gizonzkoia norberekeria, harrokeria edo asetasun eta etekin pertsonalaren bilaketarekin erlazionatzen den bitartean, emakumezkoia altruismoa, pertsonen zainketa eta ordaindu gabeko ugalketa lanekin (bai maitasuna edo familiaren txera eta esker ona lortzearren) lotzen da (Pérez Hernadorena, 2015).

Ildo honetatik jarraituz, emakume eta gizonzkoen desberdintasun biologikoei lotutako estereotipo hauek dira hain zuzen ere, EF-k desegin nahi dituenak.

Gaur egun ere, estereotipo horiek indar handia dute tamalez, eta, tradizioari begira, desberdintasun biologikoekin egon dira lotuta aurrean esan den bezala. Estereotipo horiek, gainera, zenbait talde bereizteko eta sustatzeko erabiltzen direnez, eurekin haustea oso garrantzitsua dela uste da (Jubeto eta Larrañaga, 2015).

1.2.3. Sexu bidezko lan banaketa

Egun diskriminazio sexualaren kontzeptua lanaren banaketa bezala hartzen da, azken 40 urteetan, joera feminista eta EF sortu zenetik alegia, eman diren aurrerapenei esker (Ferber eta Nelson, 1993). Lanaren banaketak erreferentzia egiten dio emakumeek eta gizonzkoek egiten dituzten lan ezberdinei, eta hauei egokitzen zaien balore ezberdinari; lan ezberdinen banaketak oso desoreka handiak erakusten ditu.

Badira urte batzuk negozio munduan generoaren ikerketa lanek interesa eta eztabaidea sortu dutela. Genero hitza gero eta gehiago entzuten da espazio ezberdinietan: komunikabideetan, eztabaidea politikoetan, eguneroko elkarrizketatan... Orokorean genero kontzeptuak maskulinotasuna eta femeninotasuna eraikitzeko prozesu psikosocialari egiten dio erreferentzia. Generoa testuinguru kultural, sozial, politiko eta ekonomikoaren araberakoa da, eta gizona nahiz emakumeei ezarritako portaera eta funtzioek erakusten dute (Zubizarreta, 2007). Hortaz, emakumezkoei eta gizonzkoiei aldarrikatutako funtzio eta portaera ezberdinek genero desberdintasunak sor ditzakete, hau da, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak. Honen ondorioz,

binarismoa gertatzen da, hau da, gizon emakumeak desberdintzen dira bakoitza bere funtzioak bete ditzan (Pérez Orozco, 2006a).

Europako Batzordeak horrela definitzen du sexuaren araberako lanaren banaketa: «Sexuaren araberako lanaren banaketak esan nahi du ordaindutako lana eta ordaindu gabekoa gizonen eta emakumeen artean banatzen dela, hala bizitza pribatuan nola publikoan, tradizioz bakoitzari izendatu izan zaion rolaren arabera» (Emakunde, 2014: 4).

Ildo honetatik, sistema kapitalista patriarkalak sexuen araberako lan banaketa zorrotza inposatzen du, emakumeei esleitzen die zaintza-lanen ardura, eta pobretzera eramaten ditu, ez soilik baliabide ekonomikoei dagokienez (lanaldiaren murrizketa, emakumeen langabezia-tasa altuak, lanaldi bikoitzak eta hirukoitzak, eta abar), baizik eta beren denbora eta espazio propioak izateko aukera ukatzen dielako ere bai. Gainera, patriarkatuak maskulinotzat jotzen denarekin lotutako orori ematen dio balioa, eta horren ondorioz, lan-sektore feminizatuetan prekariedad oso handia da, eta ia ez dute lan-arloko bermerik (hori bereziki esanguratsua da etxeko lanetan aritzen diren emakumeen kasuan, ez baitute lan-hitzarmen kolektiborik, ezta langabezia-prestaziorik eta abar ere (Rius, 2017).

Nola edo hala, lanaren berezketa sexuala nazioartekotu egiten da, zainketen kate globalak sortuz, praktikan esplotazio globalak direnak. Gorpil-zoro bat eratzen da: zainketen banaketan injustiziak-desberdintasuna-pobrezia.

Aurreko gertakariek mugimendu feministaren erantzuna izan dute, haren egoera agerian jartzen eta presio egiten jardun baitu. Mugimendu feministaren eskutik emakume indibidualek euren bidea eraiki dute tradizionalki gizonen lanak direnetan jarduteko, maila altuko lanpostuak barne (Feber eta Nelson, 1993).

Herrialde garatu gehienetan mugimendu feministak, eta ekonomilarri feministak aldi berean, emakumea indartzen saiatu dira sistema kapitalistaren barnean. Faktore honek diskriminazio sexuala eta emakumeen aukera zein eskubideen berdintasunaren kontzeptuen inplikazioa ekarri du. Aldi berean, ordainduak ez diren zainketa lanak eta lan informalaren azterketa ere ezinbestekoa izan da, hauen eginkizuna ekonomiaren giltza baita. Horrez gain, ordainduak diren lanen eta etxeko lan ez ordainduen artean sortutako arazoien ikerketa egitea ere ekarri du (Matthaei, 2010).

Honela, emakumeen eskuetan utzi da bizitzaren zaintzaren ardura, eta hortaz, iraupenarena. Honek, itxuraz autonomoa den mundu publiko bat garatzea ahalbidetu du, gizakien menpekotasunari jaramonik egiten ez diona, askatasunaren sasi-premisan oinarritua. Emakume eta gizonek askatasun osoz jardungo balute eta gizarte ugalketa-zereginak alde batera utziko balitzte merkatuan parte hartu ahal izateko, bizitza nork zainduko luke? (Carrasco, 2011).

1.2.4. Beste gabezia batzuk

Argi dago ez direla prozesu ekonomiko zein politiko neutroak existitzen. Pertsonak euren sexua eta beste ardatz batzuk (klasea, adina, etnia...) direla eta esku-hartze eta kontrol ezberdina duela. Horrela, gizabanako bakoitza modu irregular batean aurkitzen da aukera ekonomikoen aurrean. Kasu honetan, emakumeen egoera nabarmenduko da.

Sexu eta arraza diskriminazioaz gain, kapitalismoak bere sisteman parte hartzeko sorrazten dituen beste gabezia batzuk aurkezten ditu, adibidez:

a) Bazterkeria eta prekarizazioa.

Asunzek (2007) pertsona eta herri aberatsen eta pertsona eta herri pobretuen arteko aldea handituz doa eta gizarteko sektore asko emakumeak, gazteak eta adinekoak bereziki, baztertuta eta estutasunean bizi zeko arriskuan daude.

Pertsona eta herrien arteko desberdintasunen areagotzearen ondorioa, pobrezia eta bazterketa sozialaren hazkundea da. Hala, mundu mailako populazioaren %20ak aberastasunaren %90 duen bitartean, mila milioi pertsona baino gehiago egunero dolar bat baino gutxiagorekin bizi da. Spainiar estatuaren kasuan, EAPN⁴ren datuen arabera (Pobreza eta bazterketa sozialaren kontrako borrokaren Europako Sarea), 12,8 milioi pertsona baino gehiago, biztanleriaren %27,3 pobrezia edo bazterketa arrisku egoeran aurkitzen da (REAS Euskadi, 2016: 92).

Aipatzeko da, historian zehar gizarte gizarte- klase ezberdinietan antolatua izan dela. Aldiz, gaur egun esan daiteke, gizarte- antolakuntza maila ezberdinietan izan ordez zirkulu bat bestearren barnean bezala har daiteke: edo barruan zaude; edo kanpoan zaude. Hortaz, bazterkeria edo pobrezia egoeran dauden pertsonak kanpoan geratzen dira, izan ere, ez dituzte gainerako pertsonen pribilegioak edota eskubideak, sistemak kanpoan uzten ditu.

b) Enplegu datu eskasak: langabezia, ezegonkortasuna eta deslokalizazioa:

Enplegurako datuei dagokionez, garai hauetan lanpostu bat izatea, ez da bizitza kalitatearen bermea ere ez. Milioi bat behartsu baino gehiago daudela kalkulatzen da, hau da, gaur egun enplegu bat izateak ez du bizitza duin baterako diru sarrera bermatzen. Izan ere, enplegua, kapitalismoaren etapa honetan, bereziki prekarietateak ezaugarritzen du: enplegu partzialak, aldi baterako lan-postuek, soldatu baxuek, oinarrizko onuren prezioak handitzearen aurrean langile klasaren erosahalmenaren galerak, eta abar (REAS Euskadi, 2016).

c) Emakumeek genero arrazoiengatik desberdintasun bikoitza sufritzen dute:

Desberdintasun bikoitza ez da bakarrik datu ekonomikoetan finkatzen, emakumeen bizitzako alde guztiei eragiten dien kultura sozialaren parte dira. Hauek dira biztanleria pobrearen artean txiroenak, bai maila globalean eta baita Estatu Spainiarrean ere. Soldatetan desberdintasunak, lan produktibo eta erreproduktiboetarako denbora erabilera ezberdinak, berezketa laborala, diru-sarreren banaketa ezberdina, politika mailan eta sozialki ordezkaritza baxua... Baieztapen hauek datu batzuekin adieraziko dira, globalki eta lokalki diskriminazioa bistaratzen dutenak (REAS Euskadi, 2016:93):

- Pobreza egoeran dauden pertsonen %70 emakumea da, Nazio Batuen arabera.
- Munduan hiltzen den emakumeen %38 genero indarkeriaren ondorioz izaten da⁵.
- Spainiar estatuan emakumeen diru-sarrerak gizonezkoenak baino %38 txikiagoak dira⁶.

⁴ <http://www.eapn.es/>

⁵ WHO: Reportaje Violence of Women

- Spainiar estatuko emakumeen soldata totala 19.537,3 eurokoa da, eta gizonezkoena 25.682,1 eurokoa⁶.
- Mundu osoan, baldintza laboral prekariodun sektoreetako enplegua, arropa, etxeko lana eta menpeko pertsonen zainketa kasu, nagusiki emakumeek okupatua da. Gainera, ordaintzen ez diren zainketa lanekin askotan gertatzen da, beste persona batzuk (emakumezkoak gehienetan) kontratatzen direla lan hauek betetzeko (normalean gizarte segurantza eta kontraturik gabe) (Folbre, 2001).
- Zainketa lanei lotutako desberdintasunei dagokienean, Euskal Herrian, 2015ean seme-alaben zainketarako eszedentzia eskatu zuten pertsonen %96,07 emakumea izan zen; eta arrazoi horregatik jardun murrizketa eskatu zuten %91,69 ere bai, %8,31 gizonezkoa izan zelarik. Era berean, menpekotasuna edo gaixotasun larria duen senide baten kargu egiterako orduan eszedentzia eskatu zutenen %78,95 emakumeak izan ziren, jardun murrizketaren banaketari dagokionean %80,25 emakumeena izan zelarik.
- Biziraupenaren pribatizazioaren eraginez emakumeek rol hirukoitza (ekoizpenekoa, ugalketakoa eta komunitarioa) betetzen dute, etxearen lan gehiago eginez, bai eta kanpoan ere, jarduera komunitarioetan, gizarteari eusteko ahaleginean (Benería, 2005).

Ondorio bezala, baiezta daiteke bizitza bera ekonomiaren erdigunean ez kokatzearen ondorio anitzek eragina dutela makroekonomian, zein <<ezkutuko mikroekonomian>>, etxeetan hain zuzen ere (Gil, 2014).

⁶ <http://hdr.undp.org/es/content/informe-sobre-desarrollo-humano-2014>

⁷ ESTATISTIKEN INSTITUTU NAZIONALA: “Encuesta Anual de Estructura Salarial 2012” (<http://www.ine.es>)

2. EKONOMIAREN BERDEFINIZIORAKO EKARPENAK

Aurreko atalean kapitalismoak generoaren inguruan eta orokorrean sortutako gabezia gorenen analisia jorratu da. Egungo sistemaren huts egiteak ikertuz eta aldaketaren beharra ezinbestekoa dela bermatuz.

Bizitzaren prozesu jasangarriak balioan jartzeak ekonomia berriro definitza esan nahi du, sistema ekonomikoan genero harremanek duten garrantzia azalera ateratzea, eta desberdintasun egoeren eraldaketekiko konpromiso erreala hartza, ESS-ren baloreak berrezarriz.

Gakoa ekonomiaren joera androzentrikoa agerian jartza, eta “ekonomikoa dena” modu zabalago batean definitza da, produktibo/errepraktiboaren dikotomiak eratorria dela seinalatzu, merkatuen ardatz analitikoa eta baliabideen sorkuntzetara bideratutako prozesu zabalen konpetenzia desplazatzu, testuinguru kooperatibo batean, bizitzeak mereziko duen bizitza bat edukitzeko.

Beraz, bizitze onaren paradigmari begira eta zibilizazio krisi honi aurre egiteko erronkaren aurrean, ikuspegi kritikoen bateratzea beharrezkoa da. Alternatiben eraikuntzan ezinbestekoa da gizarte neoliberala eta heteropatriarkalaren zutabe nagusiak zalantzan jartzen dituzten planteamenduei arreta jartza (Mugarik gabe, 2017).

Zehazki, atal honetan EF eta ESS eredu alternatiboen proposamenak eta ekarpenak ezagutzea eta lotzea da bilatzen dena. Horretarako, eredu bakoitzaren banakako ikuspegiaren azterketa jorratuko da, bi ikuspegiiek oinarri bera dutela ahaztu gabe: ekonomia hegemonikoaren kritika bidezkoagoa den ekonomia bat bilatzu.

2.1. EKONOMIA FEMINISTA

EF-k eragin mugatua du irakaskuntzan eta ikerkuntzan. Dena den, azken urteotan gero eta gehiago garatu da. Errealitatearen ikuspegi kritikoa da, ezberdintasun sozialekiko, oro har, eta, zehazki, generoarekin lotutako ezberdintasunekiko duten kezka- bereziki, emakumeek pairatzen dituzten ezberdintasun eta bazterkeriaren adierazpide guztia eremu sozio-ekonomikoan eta politikoan (Larrañaga eta Jubeto, 2014: 39).

Pentsamendu ekonomiko heterodoxoaren korronte modura defini daiteke. Esan bezala, korronte horretan teoria eta errealitate ekonomiko eta sozialei buruzko irakurketa kritiko bat planteatzen da, emakumeei eta gizonei esleitutako rolen azterketatik abiatuta (Jubeto, Larrañaga eta Rodríguez, 2017).

2.1.1. Ekonomia feministari hurbilketa

Esan daiteke ekonomia zientzia bezala existitzen denetik existitzen dela EF. Gaur egun, EF deitzen duguna XX.mendeko bigarren erdialdean hasi zen indartzen, bereziki mendebaldean. Dena den, bere jatorriak pentsamendu ekonomikoarekin bat egiten du, teoria ekonomikoak sortu zirenean haiei egindako kritiken artean jaio baitzen eta horren baitan pentsalari feministen ekarpenak garrantzitsuak izan ziren (nahiz eta adierazpen gutxi izan pentsamendu hegemonikoan). Izenak adierazten duen moduan, EF feminismoan sustraitzen da eta aldi berean ekonomiak dituen kezkak abiapuntutzat hartzen ditu. (Larrañaga eta Jubeto, 2014: 38)

Esan bezala, EF-k feminismoa eta ekonomia ditu iturburu eta, EF aipatzen bada ere, singularrean, egiaz ez da pentsamenduaren korronte monolitiko bat eta ezin da hala izan, feminismoak ez baitu ikuspegi bakarra eta ekonomiak ere ez. Beste hitzetan, ez da EF-ren ekonomiari buruzko ikuspuntu bakarra existitzen, baizik eta, “posicionamendu ezberdinen sorta” (Carrasco, 2017).

2.1.2. Ekonomia feminista vs Ekonomia kapitalista

Arestian ikusi den bezala, EF errealtatearekiko ikuspegi kritikoa da. Hau da, ezberdintasun sozialak eta genero ezberdintasunak salatzen ditu. Egungo ekonomiaren hainbat kontzeptu kolokan jartzen ditu eta errealtatea aldatu nahi du. Egungo egoeraren aurrean gizarte berdintasunaren eta mundu justu baten alde dago EF. Baina, sexu- genero harremanen deberdintasunetik, lan kontzeptua zabaltzetik eta bizitza jasangarritasunatik harago, beste kategoria batzuei ere arreta jarri behar zaie sistema errotik irauli nahi bada.

Ezin da eraldaketarik eman, hurrengo dimentsio hauek modu desberdin eta zeharkako moduan landu gabe:

2. Taula: Ekonomis feministaren eta ekonomia kapitalistaren arteko aldaraketa:

EKONOMIA FEMINISTA	EKONOMIA KAPITALISTA
Altruismoa	Berekoikeria
Lankidetza	Lehiaketa
Bizitza soziala	Kontsumoa
Bertakoa	Globala
Kalitatea	Kantitatea eta produktibismoa
Solidaritatea eta erantzukizuna	Indibidualismoa

Iturria: Geuk egina (Tudela, 2008)-tik abiatuta

Testuinguru honetan, ezinbestekoa izango da kontuan izatea kapitalismoa ezingo dela deseraiki hurrengo sistema alternatiboa feministak ez baldin bada. EF-k gaur egungo sistema ekonomikoari alternatiba bat mahaigaineratu dio. Aldi berean, EF-k espazio publiko zein pribatuaren dikotomiak apurtzen ditu. Hau da, EF-k azterketa ekonomikoaren kontzeptu nagusiak birformulatzen ditu (Pérez Orozco, 2014).

Hortik abiatuta, EF-k asko kritikatzen duen beste kontzeptu bat, ongizatearen neurria da, errenta per capita. Beste neurri batzuk bilatu behar direla dio. Zeren analisi ekonomikoak muturrera eramatzen baditugu absurdoetan jausten gara, eta horrelako egoismoarekin arrazionalak izango bagina, gauza erabat absurdoetara iritsiko ginateke, adibidez: seme-alaba azkarretan gehiago inbertitu beharko genuke eta gutxiago seme-alaba ez hain azkarretan, eta hori ez dator inolaz ere bat errealtatearekin. Hortaz,

aldaketa horretarako, ezinbesteko da ekonomiaren analisia merkatuetatik harago eramatea (Larrañaga eta Jubeto, 2011).

Ondorioztatuz, kapitalismoak instrumentu gisa hartzen ditu pertsonak, ekoizle eta kontsumitzale gisa betetzen duten zereginak baizik ez baititu kontuan hartzen. Horrela, alde batera uzten ditu oinarrizko alderdiak, bizitza erreproduzitzeko eta kontuz zaintzeko aukera ematen dutenak, eta, era berean, eskubideak ahazten (edo murritzten) ditu, ingurune eta egoera guztieta eta pertsona guztientzat bizitza duina, zuzena eta osasungarria izan dadin bide ematen duten eskubideak (Díez eta Askunze, 2012: 7). Hori dela eta, inoiz ez dira bateragarriak izango kapitalismoa eta EF.

Aipatzekoa da, EF-k egiten duen analisian eta proposaturiko alternatiba batzuetan beste gizarte mugimenduen diskurtso alternatiboekin islatuta ikusi dela. Bateratze prozesu horrek eragin handiagoa ekar dezake planteatutako aldaketetan. Hori dela eta, lan honetan, ESS-rekin bateratzea aztertzen da.

2.1.3. Ekonomia feministaren proposamenak/ printzipioak

Orokorrean EF-k ekonomia kapitalista aldatzea bilatzen duela esan daiteke. Baino, nola?

- a) Merkatu kapitalista deszentratu eta zentruan bizia jarri:

Bizitzaren erdigunetik merkatu kapitalista kenduz eta denon arteen adostutako bizi modu duina ezartzea proposatzu.

Pérez Orozcok (2015) planteatzen duen bezala “adostasun handiko elementu bat, bizitzaren jasangarritasuna analisiaren erdian kokatzearen aldeko apustua da EF, modu honetan merkatuak alde batera mugituz”. Kapitalismoarentzat biziaren sostengua bitarteko bat da akumulaziorako. Kapitalaren beharrek antolatzen digute guztia, eta biziaren sostengua pribatizatua, feminizatua eta ikusezina da. Zaintzaren betebeharra merkatuak sortutako akatsak konpontzea da egun. Bizia erasotzen duen sistema bat mantentzeko era bakarra lana-bizia gatazka ez ikustea da, horregatik bihurtu dute ikusezin.

Merkatu kapitalistak erdigunetik kentzean, hau da, merkatuei begiratu ordez, biziari begiratzean agerian uzten da kapital- biziaren gatazka. Eta, bizia aztertzean, ohartzen gara kapitalarekin gatazkan dagoela: kapitala pilatzeko prozesuak ez dato zela bat bizia iraunazteko prozesuekin (Pérez Orozco, 2014).

Kontuan izan behar da pertsonak berez ahulak eta elkarren mendekoak garela. Biziak mugak ditu, ez da magiaren edo kasualitatearen ondorio: zaintzen denean dago bizia. Eta besteekin egin behar da, garapen hegemonikoak inposatu duen autosufizientziaren ametsa erabat faltsua delako. Iza ere, lan ikusezin horiei esker doa aurrera egungo sistema: batez ere, emakumeek egiten duten doako zaintza-lan horretaz baliatzen da merkatuzko ekonomia. Beraz, ezin daiteke pentsatu, merkatuko eta kontsumoko ekimenek gertaera honen garrantziarekin zerikusirik ez dutela (Pérez Orozco, 2014).

Modu honetan, sistema ekonomikoa izeberg baten itxurako errealitate gisa ulertzen du EF-k, non ur azalaz gainetik merkatuan gertatzen den esparru ikusgarria lego keen,

kapital metaketaren esparru gisa definitua, baina beti ere ur azal azpitik dagoen bestelako sistema “ikusezin” batean duelarik bere euskarria, gizarte-beharrizanen asetzeaz arduratzen dena, hain zuzen ere (Pérez Orozco, 2006b).

Oro har, ekonomia ez da merkatuetara murrizgarria, hots, ekonomia bizitzaren mantenurako erabiltzen diren monetazko zein ez-monetazko esparruen analisia da, eta kasu honetan, monetazko merkatu-harremanak bigarren plano batean kokatzen dira (Pérez Orozco, 2006b).

Ondoriozta liteke, beraz, EF, ekonomia eta gizartea ikusteko eta ulertzeko beste modu bat bezala definitzen dela, merkatua bakarrik kontutan hartzea alde batera uzten du, eta ardatz nagusi bezala pertsonen bizitza duen ekonomia baten bidean joan nahi du (Pérez Orozco, 2010b). Honela, eredu ekonomiko produktiboa lantzea proposatzen da, bizitzaren jasangarritasuneko ikuspegি zabalago batetik abiatuta. Pertsonak daude ekonomiaren zentroan, hori dela eta, ikuspegи feministak proposatzen duen metodologia “bizitzaren iraunkortasunaren” kategoria analitikoan laburbiltzen da (Carrasco, 2001).

b) Lan terminoaren kontzeptua berdefinitu eta erlazio heteropatriarkalak apurtu:

Egungo pentsamendu ekonomikok espazio publiko-ekonomikoa eta pribatu-ez ekonomikoaren bereizketa ezarri du, batetik lehen horri merkatua egokituz eta bigarrenari esparru familiarra. Beste aldetik, etxeko lan familiarren esparruan merkatuz kanpoko esparru gisa definitua geratzean, ekonomiaren arreta gune izateari utzi dio. Lana, hortaz, “ekoizpen faktore” huts gisa konsideratu da, eta hortik aurrera ezarri da lana enpleguarekin (soldatapeko lanarekin, alegia) berdintzen duen axioma, lanaren definiziotik kanpo utziz merkatuen ematen ez diren giza jarduera guztiak. Horrez gain, bereizketa honen bitartez “lanaren banaketa sexuala” hezurmamitu da, patriarkaltasunaren eskemetan oinarrituta egin ere, gizonari sozialki esleituriko lanek balio unibertsala lortu dutelarik, eta gainerako esparruak, andrazkoek okupatzen dituztenak, ikusezin bilakatuz (Carrasco, 2011).

“Ekonomia” hitzaren esanahia nahikoa nahasia da gaur egun. Ekonomia grezierako *oikos* (etxea) eta *nomos* (administratzalea) hitzetatik dator, hau da, ekonomia etxeko administrazio egokian oinarritzen da. Gaur egun, ordea, “ekonomia” terminoak bi esangura horiek galdu ditu. Hori dela eta, lanaren kontzeptua enpleguaren sinonimotzat hartzen da gaur egun, eta merkatutik kanpo garatzen diren lan guztiak baztertu dituzte azalpen horretatik, ikustezinak bihurtuz. Batez ere, guretzat etxeko lana eta zainketetako lana dira interesgarrienak⁸ (Carrasco, 2012). Hau da, ekonomia etxetik urruntzen da, hain zuzen ere, etxea ekonomiatik aldendu egin dutelako. Hau

⁸ Egunero eremu pribatuaren egiten diren ekintza “ikustezin” hauen artean, hiru dira nagusienak: Lehena, erreprodukzioa, hau da, haurrak egin eta hezitza, sistema kapitalistak hain maite dituen “giza baliabideak” edo errekurso humanoak izateko. Arrazoi biologikoengatik eta kulturalengatik ere, prozesu honen zati handiago bat, emakumezkoen gain erortzen da. Bigarren elementua, zaintza lanak dira. Gaixo, haur eta agureak zaintza, baziaria prestatza, etxekolanak egitea... hauek ere, maiz, emakumeek egiten dituzte etxebarruetan... kulturalki “zaintzak” emakumeen eginbeharrak direla sinestarazi baita. Eta azken elementua, gurean ez horrenbeste, baina hegoaldeko herrialdeetan ohizkoak diren nekazal txikien lanak dira, hau da, etxe ondoko baratz eta ikuiluetan etxerako lantzen diren lurraldeetako animaliak (Iriarte, 2016).

da, ekonomia eredu nagusiak etxea eraikitzeko ezinbestekoak diren hastapenak ahaztu ditu (Gil, 2014).

Horri gaineratu behar zaio, gizartearren gainezko begirada maskulinoak mundu publikoari eta merkatuari baino ez diela eman lehentasuna, eta, tradizioz, horixe bera izan dela gizarteak gizonei esleitu dien lekua. Unibertsala omen den begirada horren eraginpean, gainerako arloak ezkutuan geratu dira (Carrasco, 2012:40).

Azkenaldi hontan, EF-k ekarpen garrantzitsuak egin ditu egungo mundu mailako arazo ekonomikoaren egoeraren analisian. Ekonomia arloaren barnean, EF-k bistaratzen ditu gaur egun arte ezkutuan izan diren zenbait aspektu. Lan- merkatuan eta lanean sortutako desberdintasunen analisiak lan terminoaren kontzeptua birplanteatzea ekarri du, ordaindutako lanaldia baino zerbait gehiago izanik. (Abasolo eta Montero, 2012). Hau da, ekonomia ez da soilik enplegua edo arlo produktiboa deitu zaion hori.

Carrasco (2013)-ren esanetan, EF-k haustura bat egin du ekonomian ohikoak diren ikuspegiekin, zirkuitu ekonomikoetan etxeetatik burututako lan guztia barneratuz, hauek gabe ezin baita merkatuaren ekoizpenaren funtzionamendua ulertu.

Pérez Orozkok argitaratutako zenbait lanetan (2014, 2015) horrela definitzen da EF modu laburrean: "*ekonomia feminista kapitala-lana gatazka kapitala-bizia gatazka bihurtu duena da*", horrela lan guztiak aztertza lortzen baita (ordaindutakoak eta ordaindugabeak, produktiboak eta erreproduktiboak...). Izan ere, ezin dira prozesu ekonomikoen analisia jorratu baldin eta aurrean aipatutariko lan ez ordaindu horiek (modu batera edo bestera) ekonomian barneratzen ez badira.

Ildo honetan ideia nagusiena, ekonomia bizitzarekin eta politikarekin batera lotuta dagoela ohartaratzea da (Pérez Orozco, 2009).

Ikuspegi feministak merkatu sistemaren inguruan egiten duen analisian, ematen diren zenbait desberdintasun ikusgai egiten ditu. Besteak beste, lan honen 1.2. atalean aipatu direnak. Horren ondorioz, EF-k zenbait kontzeptu ekonomiko zalantzan jartzen ditu.

Analisi horiek feminismoak azken urteetan egindako ekarpen nagusienak eta potenteenak dira, lanaren kontzeptua berdefinitzea ekarri dutenak, hain zuen ere. Emakumezkoak esparru pribatura baztertuak izan dira eta sistema kapitalistak ez ditu baloratu ez aitortu ere ez pertsonek ezinbestekoak dituzten zaintza lanak, suntsipen naturalak kontuan hartu ez diren bezala (sistema berak eragindakoak). Horregatik, EF-k emakumezkoek jasandako esplotazioa ez ezik naturaren esplotazioa ere nabarmentzen du (Mosangini, 2012).

EF-k eremu ekonomikoan sortzen diren emakumezkoen eta gizonezkoen arteko ezberdintasunak elkar ulertzeko eta gainditzeko konpromisua bere gain hartzen du. Genero berdintasuna aldarrikatzeko eta lan- arloan aurrera egiteko, hurrengo adibide batzuk proposatzen ditu:

- Lan ordutegiaren murrizketa, gaur egun existitzen den dualtasuna sahiez tuz. Horrela, reprodukzio lana esparru pribatuan posiblea eginez.
- Lanaldi ordutegietan malgutasuna, modu honetan, lanaldi osoak laburragoak izanik.

-Amatasun eta aitatasun baimenak berdinak izatea⁹, ondo ordainduak eta besterezinak (emakumeak izaten baitira neurri handiago batean baimen hau aitortzen dutenak). Honek diskriminazio estadistikoa sahiestuko luke, emakumeek etxeko eginbeharrok egiteko denbora gehiago dutela eta ekoizpen lanerako denbora gutxiago dutelaren pentsamendua apurtuz. Beraz, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasun- bretxa murriztuko litzateke.

-Berdintasunerako eta lan errepraktiborako estrategikoak diren zerbitzu publikoen erreklamazioa. Dependentziarekin eta haur hezkuntzarekin zerikusia duten zerbitzuak konkretuki. Horrela, bai ekoizpen esparruan eta baita errepraktzia esparruan ere desberdintasuna murriztuz (Pazos, Rojo eta Saenz, 2014).

Labur esanda, EF-ren helburua ekonomiaren ikuspegi berria egikaritza da, gizakien biziraupenerako beharrezkoak diren lan guztiak barnebilduko dituen ikuspegi berri bat proposatuz (Carrasco, 2011).

2.2. EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA

Sistemaren krisia dela eta, gaur egun, munduko hainbat lekuetan, tokian tokiko oinarritik harreman soziala eta ekonomikoen beste eredu bat sortzen ari da, lankidetza globalaren bidez. Eredu honen barruan, ESS-ren aterpea dago, bertan ekonomia ulertzeko beste modu bat duten ekimenak gero eta gehiago dira (Gil, 2014: 63).

ESS ulertzeko, ezinbestekoa izango da bere jatorria eta izandako bilakaeraren hausnarketa egitea. Aipatzeko da oraindik ez dela existitzen ESol-aren definizio argirik, kontzeptuak dimentsio bat baino gehiago ditu, izan ere, baieztapen ugari onartzen dira (Coraggio, 2012).

2.2.1 Ekonomia soziala

ES Frantzian jaio zen XIX.mendean iraultza industrialeko garaian. Garai hartan emandako iraultza industrialak mugimendu asoziatibo eta gizarteko arazo ugari ekarri zituen eta egoera horri erantzuna emateko kooperativismoa sortu zen.

Langile klaseak antolamendu forma berriak sortu zituen, hala nola, kooperatibak, langile elkartek eta aseguru, aurrezki eta mailegu mutualitateak. Ez merkatuak ez estatuak asetzten ez zituen biztanleriaren parte baten urritasunei eta premiei erantzuteko helburuarekin sortu ziren aipatutako erakunde haien. Baino, horrez gain, dimensio soziokulturala ere bazuten, hau da, identitate kolektiboa eta patu bera duen talde bateko kide izatearena, bai eta izaera politikoagoko beste dimensio bat ere, garai hartako kapitalismoarekin hautsi nahi zuena (Guridi eta de Mendiguren, 2014).

XX. mendera etorrera, 70. hamarkadako krisiak desenplegu masiboa, merkatuko bazterkeriaren arriskua... ekarri zuen. Egoera larri honek, solidaritate ekonomikoaren indartzea, kooperazioa, demokratizazioa eta erantzukizuna sortzea ekarri zuen (Chaves eta Monzón, 2012). Hau da, lanik ezak eta lan merkatuan bazterturik gelditzeko arriskuak autoenplegurako eta solidaritateko dinamikak eragin zituzten, eragile

⁹ Amatasun eta aitatasun baimenen iraupena gaur egun (Urriaren 6ko 9/2009-ko legea BOE): Emakumezkoek 112 egun (12 aste) eta gizonezkoek 28 egun (4 aste).

ekonomikoen artean egoera berriari aurre egiteko (Guridi eta Mendiguren, 2014). Faktore horien eraginez ekonomia egiteko beste modu bat sortu zen, ES.

Gizarte-ekonomiaren erdigunean kokatzen diren hiru erakunde nagusiak kooperatibak, mutuak eta elkartea dira. Baino, hauez gain, erakunde formal anitzek ere osatutako sektorea da. Eta nahiz eta ikuspuntu ezberdinak egon, esan daiteke, erakunde mota hauetan garrantzitsuena ez dela ze jarduera aurrera ateratzen duten, baizik eta nola egiten den. Hori dela eta, sektorea mugatzen duten hurrengo bost irizpide proposatzen dira, autore gehienek onartutakoak (Laville eta Jané, 2009):

- Jabetza kolektiboa duten enpresak dira.
- Barne kudeaketa demokratikoa da. Non bazkide bat, bozka bat printzipioa errotuta dagoen.
- Antolakundearen objektu soziala, bazkideen beharrak asetzera bideratuta dago. Hori dela eta, zerbitzua lukuruaren gainetik dago.
- Antolakundearen objektu soziala, jarduera ekonomiko baten bitarbez burutzen da.
- Antolakundeak erabakitzeko ahalmen osoa dauka. Ez dago enpresa kapitalista edo administrazio publikoen menpe.

Huetatik bi izango lirateke nagusienak. Kudeaketa demokratikoa izatea eta mozkinen politikarik ez egoteak – edo behintzat mugatua egoteak – . Bi hitzetan, demokratikoa eta soziala. Ekonomia demokratizatzeko eta gizartearen eskuetan jartzeko potentzialtasun handiena duten elementuak direlako eta beraz, gaur egungo ekonomia kapitalista bidezkoagoa, demokratikoagoa eta jasangarriagoa den ekonomia batean bihurtzeko (Laville eta Jané, 2009).

Laburbilduz, ES enpresa ulertzeko beste ikuspuntu bat da; non demokrazian eta lukuruaren gainetiko zerbitzuan oinarrituta dagoen (Laville eta Jané, 2009). Ekonomiaren antolaketa eredu integrala barneratzen du, ekoizpena, banaketa, zirkulazioa eta kontsumoa kontutan hartuz; ez lukuruari begira biziak eta bertan parte hartzen duten guztien beharrei begira. Behar ekonomikoak eta kontsumokoak, baina baita ere behar sozialak (Guridi, Pérez de Mendiguren, Iametti, Deux, Vázquez eta Uribe, 2011).

2.2.2. Ekonomia solidarioa

ESol, ES-aren enborretik ateratzen den adar bat da (Guridi et al., 2011). XX. mendeko azken laurdenean sortutako ikuspuntu teoriko, errealtitate sozio-ekonomiko eta ekonomia ulertzeko modu ezberdina duten enpresen kudeaketari egiten dio erreferentzia. Ildo honetan, Pérez de Mendiguren eta Etxezarretak (2015a) ESol-ren izaera multidimensionala aldarrikatzen dute; non hiru esparru edo dimensio ezberdin bereizten diren.

Lehenengo dimensioa, dimensio teorikoa litzateke; non gaur egungo sistematik abiatuz, sistema alternatibo baterako oinarriak bilatu nahi diren. Bigarren dimensioan, ESol gizarte eraldaketarako lanabesa bezala ulertzen da. Lanabes politikoa da, non harreman ez kapitalistak ematen diren. Azkenik, hirugarren dimensioa, ESol-k,

enpresetan kudeatze ereduei erreferentzia egingo lioke. Kasu honetan, demokrazian, auto-kudeaketan eta enpresa-kolektiboetan oinarri duten enpresak lirateke (Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2015a).

ESS-ren bidez, harreman ekonomikoak berrantolatu nahi dira parametro desberdinei erreparatuta. ESol-k, pertsonak, garapen komunitarioa eta hauek aurrera ateratzen dituzten jarduerak sistema ekonomikoaren erdigunean jartza du helburu. Horretarako, ekonomia bere fase guztietan (ekoizpena, banaketa, finantzaketa eta kontsumoa) justizian, lankidetzan, elkarrekikotasunean eta elkarlaguntzan oinarritzen da (Guridi et al., 2011: 0). Beste hitzetan esanda, kapitala bilatu eta hura metatu ordez, ESol-k pertsonak eta beren lana jartzen ditu sistema ekonomikoaren erdigunean (Bizilur, 2016: 8).

ESol-ren abiapuntua ekonomia neoliberalaren oinarrian dagoen lehentasun-sistemaren ikuspegি alternatibo batean dago. Eredu alternatibo horretan, ekonomia helburu bat izan beharrean bitarteko bat dela esaten da, pertsonak eta komunitateak garatzen eta jendearen eta haien gizarte-ingurunaren bizi-kalitatea hobetzen lagundu behar duen bitarteko bat. Ikuspegи horren arabera, ESol eraldaketarako tresna bat bezala hartzen da, sistema neoliberalaren guztiz bestelakoa (Asunze, 2007).

Pertsonei, haien beharrei, gaitasunei eta lanari kapitalaren eta kapital-metaketaren gainetik dagoen balioa ematen die, eredu sozioekonomiko orekatuagoa eta gehiago banatzen duena aldarrikatuz. Ikuspegи horrek helburu zehatz batzuetara bideratutako balio eta jardun multzo zehatz bat biltzen du. Hauek dira helburu horiek:

- Jendea eta herritarren erakundeak jabetza eta indartzea.
- Lehian beharrean lankidetzen oinarritutako harremanak bultzatzea.
- Erabakiak hartzeko garaian eredu demokratikoak garatzea.
- Ekologia babestea.
- Aberastasunak eta finantza-tresnak baldintza etikoetan sortzea.
- Baztertutako pertsona eta kolektiboen gaitasunak indartzea.
- Berrikuntza sozio-ekonomikoa herri-garapenera bideratzea, etab.

ESol gizarte-mugimendu bat bezala garatu da azken hamarkadetan, eta mundu osoan zehar ekonomiaren alderdi guztien inguruan bestelako pentsaera eta jardun alternatibo eta solidarioa bultzatzen duten erakunde eta jarduerak biltzen ditu. Gainera, sektore bereizi honek nazioartean gero eta oihartzun handiagoa du (Asunze, 2007).

Laburbiduz, ESol-k ikuspegи berri bat eskaintzeaz gain, eraldaketarako balioak eta praktikak proposatzen dituela ere esan daiteke. Beste alternatibak bilatzeko bidean, ESol-k merkatu kapitalista lehiakorretik urrunzten diren ekintza edo sustapen sozioekonomiko ezberdinak ahalbidetzen ditu. Aurreko baieztapena egiazatzeko hurrengo atalean aldaraketa adieraziko da jarraian.

2.2.3. Ekonomia sozial eta solidarioa vs Ekonomia kapitalista

Sistema kapitalista eta –berarekin batera- pentsamendu neoliberalaren garapenak bizitzari berari balio kentzea lortu du. Kapitalismoarentzat, emaitzen kontu batean jaso daitezkeen

jarduera ekonomikoek, produktiboek edo espekulatiboek baizik ez dute balioa, jarduera horiek zuen edo zeharka gizartean eta ingurumenean dituzten ondorioak aintzat hartu gabe, onurak maximizatzeko kate amiezin batean sartuta (Díez eta Askunze, 2012: 7).

Hona hemen, modu oso labur batean adierazita, ESS-ren eta ekonomia kapitalistaren arteko desberdintasun nagusiak laburtzen dituen taula:

3. Taula: Ekonomia sozial eta solidarioaren eta ekonomia kapitalistaren arteko aldaraketa:

EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA	EKONOMIA KAPITALISTA
Pertsonen zerbitzura dagoen ekonomia	Ekonomiaren zerbitzura dauden pertsonak
Berdintasuna eta horizontaltasuna	Desberdintasuna eta bertikaltasuna
Kooperazioa eta barneratzea	Lehiakortasuna eta baztertzea
Kontzeptu zabala eta aurrerapen ezberdinak	Aurrerapen kontzeptu bakarra
Errentagarritasun soziala	Errentagarritasun finantzarioa
Kolektibismoa	Indibidualismoa
Gizarte ingurumenarekiko erantzukizuna	Deslotura gizarte ingurumenarekin
Natura ingurumenarekiko erantzukizuna	Deslotura natura ingurumenarekin
Ekimena eta parte hartze soziala	Erantzukizun eta parte hartze eskasa
Erakunde txikiak eta ertainak	Erakunde transnazional handiak

Iturria: Geuk egina SETEM (2016)-tik abiatuta.

Sistema neoliberala ez da kapitalista soilik, heteropatriarkala ere bada, eta kolonialista, arrazista, eta ingurumen ikuspegitik suntsitzalea. Sistema honek giza taldeak zein jomuga, zein bizimodu, izan behar duen esaten digu: indibidualista, kontsumista, buru askia, planeta biziaren parte garela ukatzen duena eta natura gure zerbitzura dagoela sinestarazten diguna. Mekanismo horietako batzuk kapitalistaz gain oso patriarkalak dira, indibidualismoa eta buru askitasuna adibidez (Pérez Orozco, 2014).

Mundua ulertzeko modu horrek, azkenerako, jabetza pribatua eta hazkunde ekonomikoa sakratutzat hartzen dituen fundamentalismo ekonomikoa elikatu du; berdin da baliabide mugatuak agortzen badituzte, hondakinak jasan ezinezko neurrietaraino sortzen badituzte, pertsonen arteko desberdintasun izugarria eragiten badute eta biosferaren eta gizartean konplexutasuna erabat sinplifikatzen badute ere (Herrero, 2012: 58).

ESS-k aldiz, merkatu kapitalista lehiakorretik urrunzten diren ekintza sozioekonomiko ezberdinak ahalbidetzen ditu. Horrela, ESol-n oinarritzen diren erakunde edo ekintzaile ezberdinak elkarlanean, altruismoan, solidaritatean eta lankidetzan oinarritzen dira eta gizabanakoa lorpen edo irabazi ekonomikoen gainetik ipintzen dute. ESol-k ikuspegi berri bat eskaintzen du eta baita eraldaketarako balioak eta praktikak ere (Larrañaga eta Jubeto, 2014). Beste modura esanda, “ekonomiaren alderdi guztiak pertsonen eta komunitatearen garapenerako bitarteko gisa – eta ez helburu bezala – aldarrikatzen duen ikuspegi eta praktika

da" (Guridi et al., 2011: 0).

1. Irudia: Ekonomia: Lehentasunen sistema.



Iturria: Askunze (2007: 1)

Ikusi dugunez, ESol-k, gaur egungo ekonomia kapitalista beste ekonomia justuago, demokratikoago eta iraunkorrago batean bihurtu nahi du. ESol-ren izaera demokratiko eta sozialak, dagoeneko postkapitalismo (Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2015b) bezala izendatu den, enpresa ulertzeko eredu ez kapitalista osatzen du. Postkapitalismoaren ikuspuntutik, kapitalismoak, ez litzateke gai izango pertsona guztien beharrak asetzeko eta aldi berean gizakiok bizirauteko behar ditugun baldintza biofisikoak mantentzeko. Horregatik, dagoeneko aipatu ditugun justizia, demokrazia eta iraunkortasun terminoek garrantzia hartzen dute sistema berri honetan. Hots, ekonomia ez kapitalista garatzea, gizaki guztientzako – eta etorkizuneko belaunaldientzako – ongizatea bermatzen du (Laville eta Jané, 2009). Halaber, ESol-k, eskola neoklasikoaren oinarri den "*homo economicus*" – gizakion arrazionaltasuna, berekoitasuna, lehiakortasuna eta izate utilitarista –; eta ekonomia zientzia formal, isolatu eta burujabe den ustea alde batera uzten du (Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2015a).

Azken batean, ekonomiaren ikuspuntu hau askoz ere zabalagoa da, eta bertan hainbat ikusmoldekin zein ikuspunktuk berezko lekua daukate, esaterako, EF-k.

2.2.4. Ekonomia solidarioaren printzipioak: REAS (Red de Economía Alternativa y Solidaria)

Estatu mailan¹⁰ ESol lantzeko eta ikusgai egiteko REAS (Red de Economía Alternativa y Solidaria) aurkitzen da. Hau da, REAS estatuko ESol-ko erreferentiazko antolakundea da. 1995. urtean sortu zen eta ESol-ko enpresek osatzen dituzten sareen sarea da. Egun, 18 sare ezberdin saretzen ditu; non 14 estatuko lurraltei ezberdinei egiten die

¹⁰ Bestetik, nazioarte mailari dagokionez, dinamismo handiko ekonomia solidarioko sareak eratzen ari dira. Bereziki aipatzekoa da RIPESS: Ekonomia Sozial eta Solidarioa Sustatzeko Kontinente Arreko Sarea www.ripess.eu/es/

erreferentzia eta 4 sektore ekonomiko ezberdinei egiten die erreferentzia (REAS Euskadi, n.d.).

REAS-ek, gizarte justu eta solidarioago bat lortzeko ESol bultzatzea du helburu. Nola? Garapen jasangarrirantz bideratuta eta ekonomia, gizartea, ingurugiroa eta kultura aintzat hartuta. Ekonomia egiteko beste modu bat alegia. Non elkarte, enpresa, ekonomia eta finantza ekimen ezberdinek, onartutako ESol-ren gutunarekin¹¹ bat egin behar duten (REAS Euskadi, n.d.).

REASen euskarria eta identitatea aurrean aipatutako ESol-ren printzipioen gutunean oinarritzen da. Beraz, REASEko elkarte, enpresa, ekonomia eta finantza ekimen ezberdinek, onartutako ESol-ren gutunarekin¹² bat egin behar dute (REAS Euskadi, n.d.).

Hurrengo hauek dira Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren printzipioak: (REAS Euskadi, 2017).

¹¹Ekonomia solidarioaren gutuna erdaraz eta euskaraz eskuragarri REAS-en web-orrian:
<http://www.economiasolidaria.org/carta.php>

¹²Ekonomia solidarioaren gutuna erdaraz eta euskaraz eskuragarri REAS-en web-orrian:
<http://www.economiasolidaria.org/carta.php>

4. Taula: Ekonomia solidarioaren printzipioak:

1. EKITATEA	Harremanetan berdintasuna bultzatzea eta enpresaren edo erakundearen jardueretan dabiltsan pertsona guzti-guztien interesei modu orekatuan erantzutea.
2. LANA	Lanpostu egonkorra sortzea, gizarte-bazterketa jasateko arriskua dutenak edo egoera horretan daudenak lan-munduratzan lagunduz bereziki, pertsona guztiei lanbaldintza eta soldatu duinak ziurtatzu, haien garapen pertsonala eta erantzukizunak hartzea bultzatzu.
3. INGURUMENA	Ingurumena kaltetzen ez duten ekintzak, produktuak eta ekoizteko metodoak bultzatzea.
4. LANKIDETZA	Erakundearen barruan eta kanpoan lankidetza sustatzea, lehia beharrean.
5. IRABAZI ASMORIK EZA	Ekimen sozialen helburu nagusia gizakien eta gizarteen sustapena da, eta, hortaz, ez dute irabazi asmorik. Irabazitakoa gizartera itzultzen da proiektu sozialen bidez, edo beste ekimen solidario nahiz garapenerako lankidetza-proiektu batzuetara bideratzen da, bestela.
6. INGURUMENAREKIKO KONPROMISOA	Ekimen solidarioek gauzatzen diren gizarteingurunearekiko konpromisoa dute eta, horregatik, beste erakunde batzuekin lankidetzan jardun eta sareetan parte hartu behar dute, elkartasun-esperientzia zehatzek bestelako eredu sozio-ekonomiko bat sortu ahal izateko bidean.

Iturria: Geuk egina REAS Euskadi (2017)-tik abiatuta.

Aurrekoa ezagunagoa egiteko, erakusleihoa nagusiena, ESol-ko feriak dira (urtero ospatuak). Jendea bertara gerturatzen da eta ohartzen da kontsumitzeko eta ekoizteko beste modu bat existitzen dela. Izan ere, feria hauek, produktuak eta zerbitzuak eskuratzeko espazioa izateaz gain, proiektu ezberdinak ezagutzeko eta proiektu horietan dihardutenean pertsonak ezagutzeko aukera ematen dute. Beraz, feria hauek, proiektu, pertsonak eta ideiak bat egiten duten espazioak dira. Parte-hartzaileen ahalduntzea, elkar ezagutzea eta berrespema bilatzen duten topagune jendetsuak izanik; kolektiboaren indarra sentitzeko baliagarriak dira (Arnold eta Galán, 2014).

3. EKONOMIA SOLIDARIOAREN PRINTZIPIOEN IRAKURKETA FEMINISTA

Kapitalismotik urruntzerako orduan modu indibidualean egitea oso zaila da; hori dela eta, modu kolektiboan egin beharko da. Urrutira joan gabe, 2017 urteko apirilaren 28tik 30-era Kordoban ospatutako XIII Idearia Kongresuan, agerian jarri zen pentsamendu ekofeministaren garrantzia ESol-ren mugimenduan.

ESS-ren esparruan alternatibak proposatzerakoan, esaten da alternatiba horien izaera eraldatzailea, besteak beste, genero harremanen esparru berria eraikitzeari buruzko ardura eta konpromisoa izatearen araberakoa izango dela, eta esparru berri horrek emakumeei dagozkien eskubideak eta aukerak itzuli beharko dizkiela (Ruiz, Larruskain, Uribe eta Alvear, 2015).

Lankidetza solidarioa, elkarrekikotasuna eta bidezko trukea gizarte mugimendu emantzipatzaleak batzen dituzten oinarri batzuk dira. Izan ere, hauen agenda politikoan, funtsezkoa da zuzentasunean, elkartasunean eta iraunkortasunean oinarritutako ekonomia sortzea. Printzipio hauek ESS-ren printzipoak dira eta, egile askok adierazi bezala, kapitalismo osteko ekonomia sortzea dute helburu (Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2015b).

Beraz, behin ESS-ren eta EF-en ikuspegি ekonomikoak banaka aztertu direla, bi ekonomia hauen antzekotasuna ondo ezagutzeko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak (REAS) defendatutako printzipo eta postulatu nagusien artean dauden konexio edo kointzidentziak sakontasunean aztertuko dira. Horretarako, lehenengo REASek onartutako printzipo bakoitza aztertuko da banan- banan.

Hortaz, oraingoan printzipo bakoitzaren irakurketa sakona egitearekin batera EF-k eta ESol-k eztabaidea horietan egindako ekarpenei buruz hausnartuko da, bien artean dauden antzekotasun ugariak agerian jartzeko. Horrez gain, behin printzipoz printzipo eredu bakoitzaren ekarpen teorikoa¹³ ikertu ondoren, atal praktiko bat burutuko da. Atal honetan, analisi empiriko baten bidez aurreko atal teorikoa praktikan jartzen saiatuko da, aurrez aurre egin diren bi elkarritzeten ekarpenekin hornitutako analisia izango da hau.

3.1. ANALISI TEORIKOA

1. Ekitatea.

Zentzu honetan, ekitatea ESS-ren ezinbesteko oinarrizko elementua bihurtzen da. Horrela definitzen da REAS-eko gutun solidarioan (2011:2): “Ekitateak justizia txertatzen du berdintasunean. Ekitatearen arabera, pertsona guztiekin dute duintasun berbera, eta eskubidea dute menderatze harremanen azpian ez egoteko, beren egoera soziala, generoa, adina, etnia, jatorria, gaitasuna eta abar edozein izanik ere.”

Orokorrean, EF-ren ikuspegitik hurrengo alderdietan eman behar da berdintasun egoera: enpresen erabaki- eta ordezkaritza-organoetan ordezkaritzak

¹³ Jubeto eta Larrañagaren (2015) “Ekonomia solidarioa izango da feminista bada. Ekonomia feministak ekonomia solidarioaren eraketan egindako ekarpenak”, ekoSolFem txostena (<http://burujabetzarenhariak.eus/wp-content/uploads/2016/01/A18-Economia-feminista-EkoSolFem-Txostena.pdf>) eta “Dialogos de economía social y solidaria” testuetan oinarritzen da.

parekotasunezkoa izan behar du; soldatetan berdintasuna izan behar da; eta enpresen barruan denetariko lanek izan behar dute aitortza (Rius, 2017:7).

Hori dela eta, azterketa ekonomikoaren xedea, historian zehar emakumeek betidanik jasan dituzten bereizkeriak izan behar direla defendatzen du ekonomia feministak. Izan ere. Horregatik, ekonomia honek egindako proposamenen helburu gorena emakume eta gizonen arteko gizarte- harremanetan ekitatea bilatzea da, emakumeek aspalditik jasandako bereizkeriak gainditzeko asmoz (Jubeto eta Larrañaga, 2015).

Beraz, ekonomian generoaren arloan emandako ekitate eza dela eta, EF-k gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasunak ikertzea eskatzen du. Horrela, gizartearen ikuspegi dikotomikoa hautsi nahi da; joera eta rol androzentrikoak gaindituz (Jubeto, Guridi eta Fernández, 2014).

Printzio hau, beraz, gizarte bakoitzean historian zehar baztertutako mendeko zenbait taldek jasandako bereizkeriak gainditzeko prozesuarekin lotu daiteke. Hain zuen ere, horixe bera ere defendatzen du ES-k. Zapalkuntzen eta bereizkerien arteko loturak aztertzea funtsezkoa da, generoa dimentsio garrantzitsua izanik. Horretarako, sistema sozio-ekonomikoan emakumeen eta gizonen nortasunak, bizi-baldintzak eta jarrerak zaitzen dituzten desberdintasunak gainjarri egiten direla kontuan hartu beharko dute jardun solidarioek (Jubeto eta Larrañaga, 2015: 6).

Labur esanda, ESS eta EF-k pertsona guztien behar zein interesak modu ekitatibo batean asetzearagatik duten kezkan bat egiten dute esan daiteke (Jubeto et al., 2014). Beste hitzetan, pertsonak eta euren bizi-baldintzak izan behar dira azterketa ekonomikoen helburu nagusia. Azpimarratzeko da, printzio honen inguruan bi eredu hauen ekarpenak batzerakoan, ESS-k planteatutako ekitate egoera horretan emakumezkoen eta gizonezkoen artean ematen den desberdintasun egoera nabarmendu daitekeela ekonomia EF-k egindako ekarpeneei esker.

Horrez gain, bi ereduek eskubide berdintasunean dauden ezberdintasunak eta dibertsitateak antzematen dituzte. EF-k bezala, ESS-k ere berdintasunezko harreman sozioekonomiko demokratikoak ezartzea du helburu, giza premiak harreman horizontalen bitartez estaltzea lehentasunezkoa izan dadin eta euren xedea irabazi asmo hutsa izan ez dadin, besteak beste (Jubeto eta Larrañaga, 2015: 6).

Ildo honetatik jarraituz, genero ekitatearekin lotuta aipatzeko da, Espainiako Estatuko eta Euskadiko ESS-ko erakundeen baitan eta, oro har, hirugarren sektorean, emakume asko txertatu direla azken urteetan; hainbeste, non kideen erdiak emakumeak baitira gaur egun¹⁴.

Edonola ere, erakundeetan erantzukizunezko postuak dituzten emakumeen kopuruak gora egin arren, emakumeen presentzia ez da hain nabarmena erabaki esparruetan, eta oraindik ere gutxiengoa dira erakundeen gerentziako eta zuzendaritzako

¹⁴ 2017 urtean zehar (2016ko datuekin) REAS Euskadiko Ekonomia Solidarioko entitateek burututako Auditoria Sozialaren prozesuaren emaitzen arabera lanaldi osoan adierazitako lanpostuen %66-a emakumezkoei dagokie (http://www.economiasolidaria.org/redes/reas_euskadi).

postuetan, baita zuzendaritza batzordeetan eta kontseilu errektoreetan ere¹⁵ (Guridi et al., 2011: 73).

Azkenik, garrantzitsua da kontutan hartza bi korronEEK genero dimentsioa aipatzen dutela, modu zehatz batean, gizartaren eraldaketa prozesuetan eragin behar duen zeharkako aldagai bat dela kontutan izanik.

2. Lana.

ESS-k lana ekonomian parte hartza bezala ulertzen du. Pertsonak dira ESol-ren protagonista nagusiak eta aktibitate honi esker beren gaitasunak garatzen dituzte: ekimena, sormena, pentsatzeko gaitasuna, komunikatzeko, kudeatzeko, taldean lan egiteko, arriskuak hartzeko, ikertzeko... Aldi berean, ondasun eta zerbitzuak ekoizten dira herritarren beharrak asetzeko asmoz (Jubeto et al., 2014).

Hori, era berean, gizartearen txertatu eta integratzeko modu bat da, eta pertsonaren autoestimurako zutabe bat, bizitzako dimentsio guztiekin lotuta dagoena.

EF-rentzat lanaren kontzeptua ere landu beharra dago, lan kontzepturen azterketa egitea funtsezkoa izanik. Are gehiago, EF-ren borrokaren zati handi bat lanaren antolaketa ereduan oinarritzen da. Izan ere, bizitzaren iraunkortasunari loturiko lan gehienak emakumeen esku utzi dira, gizartearen balio gutxiago eta soldatu txikiagoa izanik.

Dakigunez, lan produktiboak eta erreproduktiboak daude. Tradizioz, lan erreproduktiboei ez zaie merezi duten balioa eman eta emakumeen esku utzi dira. Bide horretan, EF-k etxeak duen garrantzia azpimarratzen du, izan ere, hori sistemotikoki ahaztu eta isildu da ekonomia-azterketetan. Ildo horretatik jarraituz, ESol-k nabarmentzen du merkatua ez dela nahikoa gizarte-ongizatea sortzeko eta kudeatzeko; hala, beste erakunde batzuk ere behar dira, besteak beste etxea, estatua eta komunitatea (Ruiz et al., 2015).

EF-ren ikuspegitik jarraituz, biztanle guztien, emakumeen eta gizonen, bizi-baldintzak izan behar dira lehentasunezko helburua, eta ulertu behar da zainketa-lana eta bere faktore subjektibo guztiak beharrezko jarduera nagusiak direla, bizitzak gizatasun-baldintzetan jarraitu dezan (Carrasco, 2012: 29). Baino, lehen esan bezala, egungo gizarteak soilik ordaindutako lana hartzen du aintzat eta egunero eremu pribatuan- etxebizitzatan- egiten diren lanak “ikustezinak”¹⁶ bihurtu ditu. Nahiz eta, hauei esker eta hauen gainean, lan ordaindua eta egungo sistema ekonomikoa oinarritzen den.

Aurreko egoeraren aurrean, EF-ren galdera betidanik izan da ea zergatik ekonomiak ez duen etxea eta etxeko lana barne hartzen (Gil, 2014). Modu horretan, EF-k ekonomiaren arloko ikuspegi tradizionalak hautsi ditu, eta etxeetatik egindako lan guzia sartu du zirkuitu ekonomikoetan, lan hori barik ez dagoelako merkatuko ekoizpenaren funtzionamendua ulertzearik (Carrasco, 2012: 29).

¹⁵ REAS Euskadin aldiz, 2017-ko Auditoria Sozialaren arabera erakundeetan erabakiak hartzen dituzten %55-a emakumezkoak dira (http://www.economiasolidaria.org/redes/reas_euskadi).

¹⁶ Ongizatea eta bizitzaren iraunkortasuna bermatzen dituzten lanak, emakuzmekoek bultzatutakoak gehienetan eremu pribatuan eta ordaintzen ez direnak.

Gai honen inguruan, REAS-ek (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea) pertsonen zainketaren esparruan burutzen den lanaren ekarpena azpimarratu nahi du. Ildo honetatik jarraituz, ESol-k lan kontzeptuaren mugak zabaltzerakoan EF-k deskribatutako lan ikustezin horiek lana konsideratzen dira- modu honetan ikuspegi dikotomikoa hautsi egiten da -. Horrek gizonek nahiz instituzioek etxeko lanetan eta zaintza lanetan izan beharreko erantzukidetasuna nahitaezkoa bihurtzea dakar. Erantzukidetasunean aurrera egiteko, ordea, ordutegi publikoak aldatu beharra dago eta aztertu beharko da nola bateratu daitezkeen emakumeen zein gizonen bizitzaziklokin. Honela, denboraren eta zainketa lanen birbanaketa ezinbesteko lehentasuna izago da gizartean eta emakumeen lanaldi bikoitzak zein hirukoitzak desagertuko dira (Larrañaga eta Jubeto, 2014: 49).

Modu honetan, ESS-k pertsonen zaintzak kontuan izatearen garrantzia azpimarratzeko da, kontuan hartu behar den balioa bezala, zaintzen ekonomiara eta bizitzaren jasangarritasunaren bidera eramanez.

3. Ingurumena.

Kapitalismoa mugarik gabeko ekoizpenarekin batera hedatu zenetik, baliabide naturalen ustiapen masiboa ESol-ren kezka bihurtu da. Arlo honetan, ESS-ren helburu gorena gizakiaren aztarna ekologikoa murriztea da eta horretarako, ekoizpen eta kontsumorako modu jasangarriak eta ekitatiboak jarraitza proposatzen du (austeritate etika egokia sustatuz) (Jubeto et al., 2014).

ESS-rekin batera, EF-k ere, egungo kontsumo irrazionala eta mugarik gabeko hazkunde-metaketen nahia kolokan jartzen du. Horren aurrean “garapenari alternatiba”ezberdinak agertzen dira eta hauek giza beharrizanak asetzea eta pertsonek eta naturak bizitza duina izateko baldintzak sortzea dute printzipio funtsezko (Gudynas, 2014).

EF-k bere aldetik nabamentzen du ingurumenaren iraunkortasunak bizitzaren iraunkortasuna hartzen duela barne, hortaz, bizitzaren iraunkortasunak gizakiarekin eta planetarekin daukala zerikusia (Jubeto eta Larrañaga, 2012: 21). Hau da, bizitza iraunkortasuna kontzeptu ekologikoaren dago lotuta, izan ere, bizitza aurrera jarrai dezan ezinbesteko elementua da planetaren zaintza bermatzea (ingurumenaren beharra daukagu). Horregatik, naturarekiko harremana oso ona izan behar da, aberastasun nahiz osasun iturria da eta.

